# Fonologiaren, lexikoaren, morfologiaren eta sintaxiaren garapena haur euskaldunengan

*Andoni Barreña (Salamancako Unibertsitatea[1])*

## Laburpena

Lanaren muina haur euskaldunek hizkuntzaz jabetzeko jarraitzen duten prozesua deskribatzea izango da. Horretarako, goizetiko pertzepzio fonologikoaz gain, fonologiaren, lexikoaren, morfologiaren eta sintaxiaren garapena aroz aro erakutsiko da haurrek bost urte inguru izan arte. Euskara elebakartasunean garatzen duten haurren jabetzeaz gain, elebitasunean garatzen dutenen bereganatzeaz ere jardungo da lan honetan, baita prozesu horien arteko berdintasunez eta ezberdintasunez ere.

## Idazkia

0. Sarrera
1. Hizkuntzaren jabetzeaz zenbait aurretiko
2. Fonologiaren garapena aroz aro
3. Lexikoaren garapenean zehar
4. Morfologiaren garapena aroz aro
5. Sintaxiaren garapenaren aro nagusiak
6. Ondorioak

[1] Eskerrak eman nahi dizkiet KGNZ eta HIJE ikertaldeetako nire lankideei, baita lan honetan azaltzen diren datuak helarazi dizkiguten gurasoei eta eurok ekoitzi dituzten haurrei ere. Lan hau egitea Eusko Jaurlaritzaren Zientzi Politikarako Sailburuordetzak (PI2009-22) eta Espainiako MICINN-ek (FFI2009-13956-C02-01) emaniko laguntzek ahalbidetu dute. Hemengo estatistika-datuak Iñaki Garcia ikerkidearen laguntzarekin erdietsi dira.

## 0. Sarrera

Euskararen jabetzeaz eta garapenaz dihardugunean, eta bereziki haurraren jaiotzatik bost urte bete bitartekoaz ari garenean, gure gizartearen hizkuntza-errealitatea datorkigu gainera: ba ote da haurrik euskara elebakartasunean garatzen duenik? Salbuespenak salbuespen, nago euskaldun diren haurren ehuneko handienak gutxienez hizkuntza bi garatzeari ekin beharko diola, bost urte bete aurretik behintzat. Haatik, lan honetan euskararen jabetzeaz jarduteaz gain, euskararen jabetzea elebitasunean egiteak haurrari dakarkionaz ere arituko naiz.

Alabaina, hizkuntzaren jabetzea bera gai konplexua izanik, hizkuntza elebidunaren jabetzea askoz ere konplexuagoa da, batez ere gizarte osoaren banan-banako prozesuez jardun behar bada. Kontua zera da, jabekuntza elebidunean haurrek erlazio ezberdinak izaten dituztela entzuten eta garatzen ari diren hizkuntzekin. Aukera-multzoa continuuma da, gutxienez entzuten dituzten hizkuntzen maiztasunen arabera zein hizkuntzak entzuten hasi diren adinaren arabera. Hizkuntzetako bat jaio aurretik entzuten eta bereganatzen hasi dira, baina noiz hasi dira entzuten bestea? Batzuek jaio aurretik entzungo dituzte biak ala biak, beste batzuek, ostera, bost urte izan arte ez dute bigarrena maiztasunez entzungo; eta tartean continuumaren aukera. Egoera zeharo ezberdinak, beraz, jabekuntza elebiduna burutzeko. Entzundako hizkuntzaren maiztasunaz beste horrenbeste esan daiteke, haurren egoera ezberdinak direla eta. Bestalde, ezin da saihestu, entzundako hizkuntzaren maiztasunaz eta hizkuntzak entzuten hasi direneko adinaz gain, hizkuntzak zein ingurutan entzuten dituzten eta hizkuntzek haurren inguruan zein ospe duten ere badutela garrantzia eta eragina.

Hala ere, idazlan honek mugak ere baditu, eta ezaugarri orokorrez eta behinenez baino ez da hausnartuko hemen. Kontuak horrela, lanaren egitura ondokoa da: lehen atalean, hizkuntzaren jabetzeaz zenbait aurretiko azalduko dira, bereziki hizkuntzaren garapenenaren inguruan oharkabe gerta daitezkeen zenbait gako eta hatsarre; bigarren atalean, fonologiaren garapenaren deskribatzeari ekingo zaio, euskal fonemen eta silaba-egituren jabetzeaz; hirugarrenean, hiztegiaren garapena erakutsiko da; laugarrenean, morfologiaren garapena aztertuko da; bosgarrenean, sintaxiaren garapena arakatuko da, eta seigarrenean, zenbait ondorioren inguruan hausnarketa egingo da.

## 1. Hizkuntzaren jabetzeaz zenbait aurretiko

Atal honetan oharkabe pasatzen diren zenbait hatsarre eta gako azalduko dira, hizkuntzaren garapenean haurrak egin behar duena eta egiten duena bere horretan har dadin gogoan.

### 1.1. Noiz eta nola hasten da hizkuntzaren garapena?

Haurra hizkuntzaz jabetzen hasten den une zehatza zein den erabakitzea ez da kontu erraza. Halere, gero eta froga gehiago dago une hori haurra jaio aurretik gertatzen dela baiesteko, jakin badakigu-eta umekia gai dela hainbat hizkuntza-kontuz ohartzeko. Gaur egun zientziaren bidez badakigu entzumenaren organoa umekiaren zazpigarren hilabetearen inguruan heltzen dela, eta ordutik aurrera bere burmuina gai dela iristen zaizkion hotsak prozesatzeko. Gai izateaz gain, entzumen-organoak eta burmuinak, garapen ohikoan bederen, ezin diete uko egin euren zereginei, eta jasotako hots guztiak prozesatzeari ekiten diotenean hotsak sailkatu eta identifikatu ere egiten dituzte, horretarako ei dago-eta eratuta gizakion burmuina.

Ildo honetatik, ugari izan dira haur txikiak pertzepzio-kontuetan duen gaitasuna arakatzeko eginiko ikerketak, hala nola, 38 asteko umekia haurdunaldian zehar entzun duen hizkuntza identifikatzeko gai dela erakutsi duena (Decasper *eta beste*, 1994), lau eguneko seina gauza bera egiteko gai dena ondorioztatu duena (Mehler *eta beste*, 1988), edo hiruzpalau hilabeteko haurrak bere lehen hizkuntzaren (edo hizkuntzen) erritmoa eta prosodia identifikatzen dituela ikusi duena (Bosch eta Sebastián-Gallés, 2001).

Oro har, haurrarekin harremanetan dauden helduek ez dute uste izaten haurra hizkuntza garatzen hasi dela lehen hitzak ekoizten hasten den arte. Alabaina, askoz ere lehenago hasi du haurrak bere bidea. Goian aipatu den legez, umekia denetik hasi da hizkuntza-hotsak gainerako hotsetatik bereizten edo bere hizkuntzaren (edo hizkuntzen) prosodia eta erritmoa identifikatzen. Behin jaiota, lehenengo hilabeteetan, gurasoentzako oharkabean gertatzen diren urratsak egiten ditu seinak pertzepzio fonologikoaren arloan, esaterako, bokalek eta kontsonanteek dituzten ezaugarri akustikoak prozesatzen ditu (Mehler *eta beste*, 1994) edo hainbat kontsonante identifikatzen ditu (Werker eta Tess, 1984). Laster hasiko da haurra lehen hots-ekoizpenak egiten, urruma-aroan, bizpahiru hilabete dituenean, baina giza-hotsak izan arren, ez dira hizkuntza-hots legez hartzen, ez baitira akustikoki alderagarriak.

Nabarmenagoa izaten da zizakadura-aroko hots-ekoizpena, haurrak sei hilabete inguru dituenean gertatzen dena. Zizakadura-aroko ekoizpenak hur daude akustikoki hizkuntza-hotsetatik, baina ez dute mezurik edo edu-

kirik adierazten. Haurra, ordea, aro honetan ahots-organoak trebatzen ari da, besteak beste, horietako askok helduaren itxura hartzen ari direlako, lau hilabeterekin laringea beheratzen, eztarria txikitzen, aho-barrunbea laburtzen eta mihiaren itxura helduarena hartzen hasten dira-eta. Haurrarengan gertatzen diren aldaketa fisiko horiek guztiak dira gizakiari hizkuntza ekoiztea ahalbidetzen diotenak, besteak beste. Gainera, zizakadura unibertsala da; haur guztiek egiten ei dute, gorrek barne (Guasti, 2002).

Zortzi hilabetetik urtea egiten duen bitartean, aurkakotasuna adierazten duten hots guztiak bereizteko[2] haurrak izan duen ahalmena soilik entzuten d(it)uen hizkuntz(ar)enak bereiztera murrizten da (Bosch eta Sebastián-Gallés, 2001; Boysson-Bardies *eta beste,* 1989; Elman 1993; Newport 1990). Halere, balizko murriztapen hau bere hizkuntza(k) garatzeko abantaila bihurtzen da, zeregin horretan buru-belarri murgilduko baita haurra urtea betetzen duenean.

Urte bete inguru duenean haurra lehen hitzak ekoizten hasten da. Zenbait hilabete lehenago, ordea, lehen hitzak eta esaldi laburrak ulertzen hasi da (Barreña *eta beste*, 2008). Urte bat eta erdi ingururekin hitz biko lehen esalditxoak egiten ditu haurrak (*ni apapa, hori ez)*, morfologia-ezaugarririk gabeak. Ondoren, bi urte inguru dituenean, gramatika garatzen hasten da, eta baliteke une honetan haurraren baitan piztu izatea gramatika-hatsarre abstraktuak erabiltzeko gaitasuna (Meisel, 2011). Hori bai, urratsez urrats garatuko ditu haurrak gramatika-ezaugarriak (Barreña eta Garcia, 2009). Era horretan jarraituz, urratsez urrats, hiru urteko haurra gai da bere lehen hizkuntzan ondo samar moldatzeko, erraz (Barreña, 1995; Meisel, 2011). Haurrak bi hizkuntza entzuten baditu bere inguruan, maiztasunez noski, biak garatuko ditu eta bietan trebatuko da adin horretarako (De Houwer, 2009),

Azaldutako garabidea haurrak hizkuntzaren garapen ohikoa duenean gertatzen da, hots, bere lehen hizkuntza(k) garatzeko zailtasun edo urritasun fisikorik edo psikikorik ez duenean, eta era berean gertatzen da hizkuntza bera garatzen duten haurrengan (Meisel, 2011). Garabide hau, gainera, oso antzekoa da munduko hizkuntza guztietan hainbat ikerketaren arabera (Guasti, 2002). Halere, hizkuntzaren garapenaren erritmoa ezberdina izaten da haurrez haur, eta ohikoa da hilabete batzuetako aldea ikustea haurren artean, esaterako, 300 hitzeko hiztegia izan arte, adizkiak (*dut, diot, zara*) ekoizten hasi arte edo postposizioak eta kasu-markak *(-k, -ri, -ren*) gauzatu arte. Alde hori handiagoa izan daiteke haurrak hizkuntza bi edo gehiago aldi berean garatzen baditu.

[2] Bereizteko gaitasuna, ezen ez ahoskatzekoa edo egitekoa.

### 1.2. Hizkuntzaren garapena elebakarrengan eta elebidunengan

Zientziak erakutsi duen legez, hizkuntza bakarraren jabetze-prozesua (H1, lehen hizkuntza) eta bi lehen hizkuntzena (2H1, bi lehen hizkuntza) prozesu bera dira funtsean baldin eta hizkuntza biak txiki-txikitatik, bereizita eta maiztasun handiaz entzuten badira, era berean gauzatzen baitute jabetzea elebakarrak eta jaiotzetik elebiduna denak. Baina, zertan dira H1 eta 2H1 prozesuak berdinak?: a) hizkuntza(k) garatzeko behar den aldian; b) hizkuntza(k) garatzeko egiten dituzten urratsetan; c) prozesuaren bukaeran lortutako gaitasunean. Inon alderik izatekotan erritmoan izan daitezke, baina beti, gorago aipatu den bezala, ohikotasunaren barruan gertatzen ei dira balizko aldeak (Meisel, 2004).

Aipagarria da, haurrak bi hizkuntzak oso txikitatik, antzeko maiztasunez eta bereizita entzuten hasten bada, biak bereizita garatuko dituela, eta bietan erdietsiko duela elebakarrek adinako gaitasuna.

Beste zerbait gertatzen da, ostera, haurra bigarren hizkuntzaren bat (haur-H2) entzuten eta garatzen hasten bada lehen hizkuntzaz jabetu eta gero. Halere, egoera horretan haur-H2 hizkuntza-garapenean gertatzen denaz ez datoz bat ikertzaileak. Egia esanda, haur-H2 baten prozesuan faktore askok dute eragina, edo izan dezakete, hala nola, bigarren hizkuntza entzuten hasten deneko adina, bigarren hizkuntzak entzundako osoan duen ehunekoa (maiztasuna), bigarren hizkuntzarekiko bere inguru hurkoak eragiten dion atxikimendua, edo bigarren hizkuntza garatzeko duen beharra. Haatik, haur-H2 delakoa ez da bera haur guztiengan; ostera, haur-H2 deitutakoak egoera zeharo ezberdinetan hazitako haurren hizkuntzen garapenak biltzen ditu, eta beharrezkoa izaten da haurrez haur egoera zehatzak aztertzea faktore horiei begira.

Esaterako, zer garrantzia du adinak haur-H2 bat garatzean? Ikertzaile gehienak bat datoz zenbat eta goizago hasi bigarren hizkuntza entzuten hobe dela prozesuaren bukarean lor daitekeen gaitasunari begira. Baina, zer eragin du entzundakoaren maiztasunak? Era berean gara daiteke haur-H2 bat egunero ordu betean entzunez gero edo egunero bost ordutan entzunik? Nola uztartzen dira faktore bi horien eraginak? Eta atxikimenduarena? Eta beharrarena?

Euskal Herriko haur euskaldunak hizkuntza bi garatzera behartuta daudela esan daiteke. Alabaina, elebitasunera heltzeko bideak oso diferenteak dira haurrez haur, eta oso zaila gertatzen da, beraz, orokortasunez hitz egitea.

### 1.3. Sintaxia hizkuntzaren hezurdura

Sintaxia hizkuntzaren ataletako bat izateaz gain, zerbait gehiago ere bada: giza- hizkuntzaren hezurdura. Hitzak eta morfemak ez dira edozelan elkartzen perpausetan, arau zorrotz eta zehatzak jarraiturik baino. Adjektiboak izenen ondoren jartzen dira euskaraz, edo *–t* morfema adizki jakin batzuei baino ezin zaie erantsi, esaterako.

Hitzak eta morfemak perpausetan antolatzeko sistemari eta berau bideratzen duen arau-multzoari deitzen zaio sintaxia; eta horri esker, hitz-multzo mugatuarekin, baina hurrenkera zehatza gauzatuz, esanahi konplexua eta zehatza ulertaraz daiteke. Sintaxiak ahalbidetzen du hiztegi mugatuarekin egin daitekeen perpaus-kopurua mugagabea izatea. Besteak beste, gizakiok gai gara egundo entzun ez dugun esaldia eraikitzeko, edo mezu zehatz-zehatzak segundo batzuetan jakinarazteko.

Asko dira gramatikaren jabekuntza sintaxiak berak bideratzen duela diotenak, eta ez edozelan, baizik eta perpausaren egitura hierarkikoak gidaturik (Meisel, 2011; Barreña, 1995). Horrela, bada, gramatikaren jabekuntza mailakatua izango da; urratsez urrats gertatuko da. Gainera, prozesua perpausaren egitura hierarkikoak bideratzen badu, haur guztiek hurrenkera berean garatuko dute hizkuntza bera, lehen hizkuntza legez (H1 edo 2H1) garatzen badute behintzat.

### 1.4. Hizkuntzaren garapena aztertzeko metodologiaz

Hizkuntzaren garapena aztertzeko orain arte erabilitako metodo nagusiak hiru izan dira: esperimentuen bidez hizkuntzaren alderdiren bati begiratzea (esperimentu-metodoa), haurraren garapena luzaro behatzea (luzetarako metodoa) eta haur-multzo handi baten adin zehatz bateko datuak jasotzea (zeharkako metodoa).

Idazlan honetan erabiliko diren datuak iturri-mota horietatik ekarri dira. Lehenengo eta behin, esperimentuen bidez lortutakoak daude. Horrelakoa da, esaterako, 1.1. azpiatalean lehen hizkuntza identifikatzeko lau eguneko seinen gaitasuna neurtzeko aipatzen zen esperimentua (Mehler *eta beste*, 1988). Helburua kontuan hartuta (sein jaio berrien gaitasuna euren lehen hizkuntza identifikatzeko), esperimentu zehatza eraiki zuten (hainbat hizkuntzatako hizketaldiak entzunaraziz, tartean euren hizkuntzarena, hizkuntza bakoitzaren entzuketan txupetearen zurgaketa-erritmoa zainduta haurren erreakzioak neurtuz).

Bigarrenik, luzetara jarraitutako zenbait haurri bildutako garapen datuak aurkeztuko dira. Halakoetan, ohikoa izaten da haur gutxiren datuak

biltzea, haur horiek luzetara behatzea lan ikaragarria da-eta. Adin-tarte luzean, esaterako, 1;06 (urtea; hileak) adina duenetik 4;00 adinera arte, hamabostero edo hilero egin behar zaio 30 edo 45 minutuko grabaketa haurrari; eta grabaketa horietan bildutakoa aztertu egin behar da. Horrela bildu dira, esaterako, ondoko ikerlanen datuak euskararen garapena aztertzeko: Barreña (1995), Ezeizabarrena (1996), Zubiri (1997), Elosegi (1998) eta Almgren (2000).

Azkenik, zeharkako metodoaz jasotako datuak erakutsiko dira. Era horretakoak dira, adibidez, KGNZ tresna eraikitzean bilduak (Barreña *eta beste*, 2007; Barreña, Ezeizabarrena eta Garcia, 2011). Galdetegi itxiak egin ondoren, zortzitik berrogeita hamar hilabete bitarteko haurren gurasoei euren seme-alabek adin jakin batean ekoizten dituzten hitz, morfologia-marka eta sintaxiaz itauntzen zaie. Haurraren ekoizpena une zehatz batekoa da zeharkako metodoan, luzetarako metodoan gertatzen denaren alderantzizkoa.

## 2. Fonologiaren garapena aroz aro

Pertzepzio fonologikoa lehenago garatzen hasi bada ere, trebetasun fonologikoak zizakadura-aroan hasten da erabiltzen haurra, seigarren hilabetearen inguruan.

Lau hilabete izan aurretik, haurraren aho-barrunbeak antza handiagoa du tximinoarenarekin gizaki helduarenarekin baino. Baina adin horretan, lehenago esan den bezala, haurraren ahots-organoak apurka-apurka aldaketa esanguratsuak jasaten hasten dira, hiru urterekin gizaki helduaren antzeko bihurtu arte (Lenneberg, 1982).

Zizakadura-aroa haurra hotsen ekoizpenean trebatzeko alditzat jotzen da. Aro honetan, beraz, artikulazio-organoekin saiakerak egiten ditu haurrak, hartakotzen ari baita. Alabaina, aro honetan haurrak ekoizten dituen hotsek gainditu egiten dute entzuten ari den hizkuntz(ar)en sistema fonologikoko(ar)enak, hots, haurra gai da aro honetan bere hizkuntz(et)an ez diren hotsak gauzatzeko (Locke, 1983; Werker, 1995). Badirudi, beraz, zizakadura-aroan haurraren gaitasunak bizi izandako esperientzia gainditzen duela, eta inoiz entzungabea ere ekoizteko gai dela. Horrez gain, gauza jakina da haur guztiek izan behar dutela zizakadura-aroa. Zentzu honetan, gormutuek egiten duten esku-zizakadurak (zeinuen bitartez, alegia) aro honen unibertsaltasuna iragartzen du.

Urtea betetzean, gutxi gorabehera, haurrak inoiz entzungabeko hotsak ekoizteko izan duen gaitasuna murriztu egiten da, eta dagoeneko bere

hizkuntz(et)ako batzuk ahoskatzeko baino ez da gai (Boysson-Bardies *eta beste,* 1989; Newport, 1990; Elman, 1993). Une honetan erdiesten du haurrak trebetasun fonologiko egokia bere hizkuntz(et)ako lehen hitz solteak gauzatzeko, nahiz hasierako hitz horiek bere ingurukoek baino ez dituzten ulertuko hastapenean.

Apurka-apurka haurraren egokitasun fonologikoa hobetuz joango da eta bere hizkuntza(k) gauzatzeko beharrezko diren artikulazio-trebetasun guztien jabe egingo da, baldin eta zailtasun edo urritasun fisikorik ez badu. Kontuan izan behar da, haurraren hizkuntza-gaitasuna entzuten duen aldaerarenera egokituko dela, eta ez inoren hizkuntza idealenera.

Fonologiaren garapena deskribatuko duen atal honetan erabiliko diren datuak hainbat ikerketatatik ekarritakoak dira, eta hiru multzotan antolatu dira: lehenengoan, fonema-multzoaren bereganatzea erakutsiko da; bigarrenean, silaba-egituraren garapena aztertuko da, eta azkenean, jabekuntza elebiduneko garapen fonologikoari helduko zaio.

### 2.1. Fonemen garapena

Luzetara behatutako bi haur euskaldun hutsen datuak azterturik[3] (Barreña, 2003), ondoko urratsak bereiz daitezke fonologiaren garapenean haurrek lehen hitzak erabiltzen hasten direnetik:

1. Hasieran, 12 eta 18 hilabeteen artean, haurrek bost bokalak (*a, e, i, o, u*), zenbait diptongo (*ai, au, ua*) eta kontsonante leherkari gehienak (*m, n, b, p, t, g, k*) ekoizteko gai dira. Silaba-egitura, aldi honetan, KB erakoa da, hots, kontsonanteak eta bokalak osatutakoa. KB egituran K egongunea hutsik izan daiteke eta B egongunea bokal batek edo diptongo batek bete dezakete. Hona hemen haurrek ekoitzitako adibide-zerrenda:

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (1) | a. | atite | (*aitita*) | O 1;01[4] | b. | go (*gol*) | O 1;03 |
| | c. | agia | (*argia*) | O 1;05, E 1;05 | d. | aputu (*apurtu*) | O 1;05 |
| | e. | aku | (*Asun*) | O 1;02 | f. | itati (*Irati*) | O 1;01 |
| | g. | aita | | O 1;05 | h. | au (*hau*) | E 1;05 |
| | i. | ata | (*hartza*) | E 1;06 | j. | tato (*salto*) | E 1;07 |
| | k. | tata | (*zapata*) | E 1;06 | | | |

[3] Euskara baino ez zuten garatu hiru urte izan arte, behintzat.

[4] Adibideak honela erakutsiko dira: haurrak dioena idatzian jarria (estandarrean adierazia, parentesi artean). O 1;01 delakoa zera da: O (haurraren izena); 1;01 (*urteak; hilabeteak* adibidea ekoitzi duenean).

Nabarmena da, halere, haurrek sarritan hots-ezabaketak (1a-e), hots-ordezkapenak (1e-f, 1i-k), hots-eransketak, hots-errepikaketak (1k) eta halako prozesu fonologikoak egiten dituztela. Gauza bera ikusi dute gainerako hizkuntzetan, esaterako, Hernández Pina-k (1984) gaztelaniaz eta Lleó-k (1997) gaztelaniaz, katalanez eta alemanez.

Goiko zerrendan, esaterako, *k* leherkariak *s* txistukaria ordeztu du (1e). Antzeko fenomenoa ikus daiteke (1f) adibidean, zeinetan *t* leherkaria *r* dardarkariaren ordez agertzen den, *t* hori aurretik gauzatutakoa den neurrian errepikaketatzat ere jo daitekeen arren.

2. Hurrengo urratsean, 18 eta 24 hilabeteen tartean, leherkariak ez diren kontsonanteak hasten dira haurrak ekoizten, hala nola, *l* eta *r* albokoak (2b, 2a), *dd* sabaikaria (2c) eta txistukariren bat (2d); diptongoen zerrenda ere handitu egiten da, *oi* eta *ei* gauzatzen hasten dira-eta aldi honetan (2d-e).

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| (2)) | a. | etori (*etorri*) | O 1;07 | b. | hol[5] (*hor*) | E 1;11 |
| | c. | addadda (*Amaia*) | O 2;00 | d. | goix (*Egoitz*) | E 2;00 |
| | e. | ebei (*ebagi*) | O 2;00 | f. | gita (*giltza*) | E 1;06 |
| | g. | tatian (*zaldian*) | E 1;07 | h. | kan (*jan*) | O 2;00 |
| | i. | amon (*eman*) | O 1;07 | j. | go (*Egoitz*) | E 2;01 |

Adibideetan ikus daitekeen legez, haurrek ez dute beti era berean jokatzen. Esaterako, O haurrak *rr* hotsa ordezteko *r* darabil (2a) baina E haurrak *l* aukeratu du fonema beraren ordez (2b). Batzuetan haur berak erabili ditu bide diferenteak: E haurrak, esaterako, *Egoitz* esan beharrean *goix* (2d) zein *go* (2j) ebakitzen du.

3. Hirugarren urratsean, 24. hilabetetik 36. hilabetera, fonema-multzoa asko zabaltzen da, *ñ*, *ll*, *tt* sabaikariak eta *s*, *z*, *x*, *tz*, *tx* txistukariak (frikariak zein afrikatuak) agertzen dira (3 eta 4 adibideak).

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| (3) | a. | pullia (*ipurdia*) | E 2;01 | b. | ipiñi (*ipini*) | O 2;01 |
| | c. | atta (*aita*) | E 2;01 | e. | ez | O 2;01 |
| | f. | txetxea (*zezena*) | E 2;01 | g. | juen (*joan*) | O 2;04 |
| | h. | oin (*orain*) | O 2;01 | i. | beittu (*begiratu*) | O 2;03 |
| | j. | auria (*euria*) | O 2;05 | k. | norutz (*norantz*) | O 2;03 |

Kontsonanteak, aldi honetan, bokalaren ostean ere agertzen hasten dira, KBK zein KBKK egituretan, lehena goizago gertatzen dela.

[5] Haur hauek aspiraziorik egiten ez duten arren, adibideetan *h* letra gordetzea erabaki da.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| (4) | a. | zabaldu | O 2;02 | b. | apurtu | O 2;02 |
| | c. | tiris (*txirrist*) | O 2;02 | d. | nik | O 2;01 |
| | e. | kotxek | E 2;02 | f. | non | E 2,02 |
| | g. | hartz | O 2;03 | h. | beltx (*beltz*) | E 2;09 |

4. Nolanahi ere, badira zenbait kontsonante eta diptongo beranduago agertzen direnak, 36 hilabete izan baino beranduago, alegia. Hori da *rr* dardarkariaren kasua eta *eu* diptongoarena. Haur askoren ekoizpenean ohikoa da *rr* dardarkaria lau urte izan arte ez agertzea. Gaztelaniaren inguruko ikerketa batean antzeko ondoriora heldu da Bosch (1984) ikertzailea.

### 2.2. Silaba-egituraren garapena

Silaba-egituraren garapena, laburbildurik, honela gertatzen da: KB, KBK, KBKK eta KrB(K).

Aldi luze batean haurrak KB bezalako egiturak baino ez ditu ebakitzen, zeinetan K egongunea hutsik ere izan daitekeen (ikus 1).

Ondoren, bokalaren ostean, KBK egituran, apurka eta banaka kontsonanteak agertzen hasten dira koda egongunean, amaierako egongunean alegia (2b, d, g, h, i): *n* kontsonantea izaten da lehena eta *k*, *t* leherkariak azkenetakoak. KBK egituraren egonkortzea prozesu luzearen bukaeran gertatzen da, horretarako sei hilabete baino gehiago igaro behar dira.

Silaba-egituraren garapenean KBKK da hurrengo urratsa (4g,h), dagoeneko KBK egitura egonkortu samar dagoenean. Kontuan izan egitura honetan bokalaren ostean bi kontsonante ahoskatu behar direla.

KrB(K) egitura, silaba trabatuarena, euskaraz *r* eta *l* kontsonanteez egiten dena, beranduen agertzen dena da. O haurraren ekoizpenen artean soilik aurkitu ahal izan zen, 4;03 adinarekin lehen aldiz gauzatua (Barreña, 2003). E haurraren datu-bilketa goiz bukatu zen fonema honen gauzatzea ikusi ahal izateko, E-k 3;00 adina zuenean, alegia.

### 2.3. Jabekuntza elebiduneko garapen fonologikoa

Euskara elebitasunean garatzen duten haurren garapen fonologikoari buruzko ikerketa gutxi daude, baina horietako baten emaitzak ekarriko dira hona, Alegria-k egindako ikerketarenak (2007), hain zuzen. Ikertzaile honek euskaraz eta gaztelaniaz jabetzen ziharduen haur elebidun baten ekoizpena behatu du.

Koda-egongunean dagoen kontsonantearen gauzatzea (KBK egiturako amaierakoa, alegia) sarritan izan da ikertzaileen ikerkuntza-gaia elebidu-

nen ekoizpenean (Lleó, 1997; Lleó *eta beste,* 2003). Ikusi den ondorioetako bat zera da, KBK egitura oso ohikoa bada hizkuntza batean, alemanean esaterako, baina ez bestean, gaztelania mintzatuan alegia, hizkuntza bietan agertzen dela aldi berean elebidunengan, nahiz horrek goizago agertzea ekar dezakeen haur gaztelaniadun elebakarrekiko ekoizpenarekin erkatuta.

Alegriak (2007) hizkuntza biak jaiotzetik eta antzeko maiztasunez entzun zituen haur elebidunaren ekoizpenak aztertu ditu, baina 1;09 adina izan zuenetik 2;01 adinera bitartekoak baino ez. Ondoko taulan jaso dira emaitzak (1. taula).

*1. taula. Haur elebidun baten KBK silabaren gauzatzea euskaraz eta gaztelaniaz: kopuru absolutuak eta ehunekoak, adinaren eta hizkuntzaren arabera (Alegria 2007).*

| | *1;09* | *1;10* | *1;11* | *2;00* | *2;01* | *Guztira* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *Euskara* | 202/49[1]<br>%24 | 80/31<br>%39 | 84/23<br>%27 | 312/132<br>%42 | 132/66<br>%50 | 810/301<br>%37 |
| *Gaztelania* | 51/4<br>%8 | 33/10<br>%33 | 114/23<br>%20 | 119/33<br>%28 | 83/25<br>%30 | 400/95<br>%24 |

Aztertutako korpus osoan bikoitzak dira KBK egiturak euskaraz (810 euskaraz eta 400 gaztelaniaz) eta nabarmena da, bereziki hasieran, KBK egitura sarriago egiten duela euskaraz.

Alegriaren datu horiek Lleók *eta bestek* (2003) biltzen dituzten gaztelaniadun elebakarren datuekin alderatuz gero (ikus 2. taula), nabaria da haur elebidunak sarriago gauzatzen duela KBK egitura elebakarrek baino.

*2. taula. KBK egituraren ekoizpena gaztelaniaz haur elebakar eta elebidunengan, adinaren arabera: erabileraren ehunekoak (Alegria, 2007).*

| | *1;09* | *1;10* | *1;11* | *2;00* | *2;01* | *2;02* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *A elebakarra (Lleó eta beste, 2003)* | %12 | %17 | %8 | %26 | - | %41 |
| *B elebakarra (Lleó eta beste, 2003)* | - | %4 | - | %6 | %30 | %11 |
| *Elebiduna (Alegria, 2007)* | %8 | %33 | %20 | %28 | %30 | - |

[6] Kopuru absolutu hauetan zera adierazten da: KBK egitura gauzatzea eskatzen zuten egoera guztiak, eta horietatik haurrak ekoitzi zituenak. Esaterako, lehenean haurrak 202 egoeretatik 49 alditan baino ez zuen amaierako kontsonantea gauzatu. Ehunekoak errealizazio horren proportzioa adierazten du.

Jaiotzatik bi hizkuntzak garatu dituen elebidunaren datuetatik ondorio hauek proposa daitezke: a) haur elebidunak sistema fonologiko biak bereizten ditu; b) elebidunaren jabetze-prozesua haur elebakarren antzekoa da hizkuntza bakoitzean; c) hizkuntza biek komunean duten fonemaren bat edo egituraren bat hizkuntza bietako batean gauzatzen hasten denean, beraren errealizazioa beste hizkuntzan ere agertu egiten da. Halere, gogoan izan elebidun honek hizkuntza biak jaiotzatik, bereizita eta antzeko proportzioan entzun dituela, eta beraz ondorio hauek 2H1 prozesutik ondorioztatuak direla.

## 3. Lexikoaren garapenean zehar

Lehen hitzak erabiltzeko, trebetasun fonologikoez gain beste hainbat gaitasun ere bereganatu behar izan ditu haurrak. Besteak beste, entzuten duen hots-continuumetik (hizketaldiak ez baitu etenik) hitzen mugak bereizteko gai izan behar da; hots, entzuten duen *hausaguadaikustenduzu* hots-continuumetik *hau* eta *sagua* hitz beregainak eta osoak direla bereizten ikasi behar du. Horrez gain, hitzek esanahi zehatza dutela ere ikasi behar izan du eta, oro har, inguruko objektuak edo ekintzak izendatzen dituztela[7]. Amaitzeko, hitz bakoitzaren esanahi zehatza ere ikasi beharko du.

Hitzen mugak ezagutzeko prosodiak laguntzen dio haurrari, eta gizakiok gure garunera heltzen diren hotsak prozesatzeko daukagun sistemak (hotsen hurrenkera-arauak bilatzea, hitzen egitura-ereduen ezagutzea, murriztapen fonotaktikoen identifikatzea, eta abar). Hitzen esanahiaz bereganatzeko baditu haurrak hainbat trebetasun, hala nola, bere inguruko gizakiek hitz egitean asmoak adierazten dituztela uste izatea, kontzeptuez bereganatzeko iaiotasuna, egitura sintaktikoak erabiltzeko aukera edo ikasten duena oroimenean gordetzeko gaitasuna (Bloom, 2000:10).

Haurrak ebakitzen dituen lehenetako hitzak izenak izaten dira eta inguruko gizakiak eta objektuak izendatzeko erabiltzen ditu (Bates, Dale eta Thal, 1995; Caselli *eta beste*, 1995; Barreña eta Garcia, 2009). Hala ere, lehenetako hitz horiek murriztapen fonologikoak dituzte, aurreko atalean ikusi den legez, baina ulergarriak dira haurraren inguruko helduentzat. Batzuetan hitzak berak ere asmatu egiten ditu haurrak.

Aditzez jabetzeko, ostera, ez du erreferentzialtasun nahikorik izango haurrak, aditzek adierazten dituzten ekintzak abstraktuagoak dira-eta.

[7] Haurraren lehen hitzei buruz ari gara, gauza jakina baita izenez eta aditzez gain beste hitz-mota batzuk ere badirela.

Aditzen esanahiez jabetzeko, beraz, egitura sintaktikoaz baliatu beharko da haurra (Brown, 1957; Guasti, 2002). Kontua da aditzek egitura sintaktiko zehatzak islatzen dituztela, argumentu bakarra eskatuz (*joan* eta *etorri* aditzek bezala), bi argumentu eskatuz (*ekarri* eta *eroan* aditzek bezala) edo hiru argumentu eskatuz (*eman* aditzak bezala). Egitura horien gauzatzeak lagundu egiten dio haurrari aditzaren esanahiaz jabetzeko.

Bestalde, aipatu behar da hitzak ikastean, esanahiaz gain hitzaren kategoriaz ere jabetu behar dela haurra, hots, *izena*, *aditza*, *adberbioa*, *adjektiboa* edo *morfologia* den ere bereganatu behar duela. Kontu hau oso behinekoa da esaldien ekoizpenerako, ekoizpen zuzenerako alegia, kategoria bakoitzak egongune diferenteak eta bereziak hartzen baititu esaldian. Kategorien jabetzea ez da kontzientea, noski.

Atal honetan lehenengo eta behin hiztegiaren garapen goiztiarra nolakoa den erakutsiko da, ondoren hitz-leherketa nola gertatzen den ikusiko da, jarraian hitz-kategorien bereganatzeari ekingo zaio, eta amaitzeko elebitasunean euskara garatzen duen haurraren hiztegiaren garapenaz ohar batzuk aipatuko dira.

### 3.1. Hiztegiaren garapen goiztiarra (8tik 15 hilabetera bitartekoa)

Urte bete duenean hasten da haurra lehen hitzak ekoizten, baina hitzen esanahia ulertzen lehenago hasi da, urte bete duenerako 83 hitz ulertzen duelako (Barreña *eta beste*, 2008), gutxi gorabehera.

Ondoko tauletan (3.a eta 4.a) ehunka haurren datuak bildurik zortzi hilabetetik hamabost hilabetera bitarteko haur euskaldunen hitz-ulermenaren eta ekoizpenaren garapenak ikus daitezke. Datu horiek CDI (*Communicative Development Inventories*) tresna (Fenson *eta beste*, 1983) euskarara egokitzean jasotakoak dira, KGNZ (*Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda*) tresna eraikitzeko prozesuan, alegia (Barreña *eta beste*, 2008). KGNZ tresna eraikitzeko hiru galdetegi erabili dira, lehena 8tik 15 hilabetera bitarteko haurren gurasoek bete dutena (*KGNZ I* edo *Hitzak eta keinuak* izenekoa), bigarrena 16tik 30 hilabetera bitartekoentzat (*KGNZ II* edo *Hitzak eta esaldiak* izenekoa), eta hirugarrena 31tik 50 hilabetera bitartekoentzat (*KGNZ hirugarrena* izena duena) (Barreña *eta beste*, 2008; Barreña, Ezeizabarrena eta Garcia, 2011).

*3. taula. Lexikoaren ulermena eta ekoizpena 8 hilabetetik 15 hilabete bitarteko haur euskaldunengan, adinaren arabera (Barreña eta beste, 2008).*

| *Adina* | *Haur-kopurua* | *Batez besteko ulermena* | *Batez besteko ekoizpena* |
|---|---|---|---|
| *8 hilabete* | 39 | 14,6 | 0,15 |
| *9 hilabete* | 49 | 29,9 | 0,36 |
| *10 hilabete* | 54 | 43 | 1,14 |
| *11 hilabete* | 46 | 66,6 | 1,86 |
| *12 hilabete* | 55 | 83 | 3,12 |
| *13 hilabete* | 65 | 94,3 | 4,76 |
| *14 hilabete* | 68 | 124,7 | 8,55 |
| *15 hilabete* | 65 | 161,3 | 9,32 |

*4. taula. Zortzitik hamabost hilabetera bitarteko haur euskaldunek ekoitzitako hitz-kopurua (Barreña eta Garcia, 2009).*

| | *Haur-kopurua (ekoizleen ehunekoa)* | |
|---|---|---|
| *Hiztegia* | *8-11hilabete bitartekoak* | *12-15 hilabete bitartekoak* |
| *Hitzik ez* | 139 (%73,5) | 60 (%23,7) |
| *1-10 hitz* | 47 (%24,9) | 146 (%57,7) |
| *11-50 hitz* | 3 (%1,5) | 43 (%17,4) |
| *51-100 hitz* | - | 2 (%0,8) |
| *101 hitz baino gehiago* | - | 1 (%0,4) |
| | 189 (%100) | 253 (%100) |

Goiko tauletan ikus daitekeen legez, haurren %73,5k ez du hitzik ekoizten urtebete izan aurretik, eta horrela jarraitzen du, hitzik ekoitzi barik, haurren %23,7k 15 hilabeterekin. Haurrik gehienek 15 hilabeterekin 10 hitz baino gutxiago ekoizten dituzte, gutxi batzuk baino ez izanik kopuru hori gainditzen dutenak, %18,6, alegia. Ulermena, ostera, garatuago dute.

Haurren artean neskatoak eta mutikoak bereiziz gero, ikerketa honetan ez zen alde esanguratsurik aurkitu adin-tarte honetan hitzen ekoizpenean ($F(1,442)=1,62$; $p=0,204$; Barreña *eta beste,* 2008).

### 3.2. Hitz-leherketa haur txikiengan (16tik 30 hilabetera bitartekoa)

KGNZ II-ren emaitzak 16 eta 30 hilabete bitarteko 975 haurren datuekin egin ziren. Aldi horretan haurrak batez beste 28 hitz ekoiztetik 401 hitz ekoiztera iristen dira (Barreña *eta beste*, 2008), 5. taulan ikus daitekeen legez.

*5. taula. Hitz-ekoizpena 16tik 30 hilabetera bitarteko haur euskaldunengan, adinaren arabera (Barreña eta beste, 2008:57).*

| *Adina (hilabeteak)* | *Haur-kop.* | *Batez bestekoa* | *Desbideratze tipikoa* | *Gutxienezko kopurua* | *Gehienezko kopurua* |
|---|---|---|---|---|---|
| *16* | 46 | 28,09 | 34,17 | 1,00 | 141,00 |
| *17* | 49 | 38,79 | 66,53 | 4,00 | 440,00 |
| *18* | 47 | 70,19 | 79,96 | 6,00 | 335,00 |
| *19* | 53 | 88,56 | 115,18 | 2,00 | 494,00 |
| *20* | 48 | 116,72 | 111,12 | 8,00 | 473,00 |
| *21* | 52 | 129,98 | 121,32 | 3,00 | 567,00 |
| *22* | 68 | 151,53 | 116,87 | 8,00 | 432,00 |
| *23* | 66 | 210,35 | 147,24 | 8,00 | 593,00 |
| *24* | 72 | 235,87 | 122,91 | 20,00 | 582,00 |
| *25* | 71 | 264,65 | 140,25 | 15,00 | 557,00 |
| *26* | 83 | 295,77 | 131,08 | 10,00 | 602,00 |
| *27* | 74 | 339,74 | 138,57 | 48,00 | 597,00 |
| *28* | 81 | 375,68 | 152,85 | 19,00 | 641,00 |
| *29* | 71 | 397,58 | 145,29 | 9,00 | 627,00 |
| *30* | 94 | 401,77 | 153,88 | 40,00 | 654,00 |

Nabarmen ikus daiteke 17 edo 18 hilabetetik aurrera hiztegiaren hazkundea. Antzeko garapena ikusten da behatutako hainbat hizkuntzatan, hala nola, ingelesez (Fenson *eta beste*, 1983), galizieraz (Pérez-Pereira, 2008) eta gaztelaniaz (López-Ornat *eta beste*, 2005).

Aldi honetan ere ez da ikusi, ikerketa honetan, haurren sexuaren eraginik hitz-ekoizpenean [F (14, 944), p = 0,2], hots, datu-estatistikoen arabera sexua ez da aldagai eraginkorra hiztegi handiagoa izateko (Barreña *eta beste*, 2008).

### 3.3. Hitzen bereganatzea eta hitz-kategoriak

Lehenago ere aipatu den legez, haurrak darabiltzan lehenetako hitzak bere inguruko gizakiak, abereak eta objektuak izendatzeko izenak dira. Horiez gain, hasieratik ere badira sailkapen zaileko diren beste hitz batzuk, hala nola, *bai*, *ez* eta *agur*, eta aditz apur batzuk ere. Edozelan ere, izenen nagusitasuna nabarmena da.

Urtebete izan baino lehen 189 haurretatik batek baino gehiagok darabiltzan hitzak hauexek dira (Barreña eta Garcia, 2009): *ama*, *amama, aita, aitita, izeba, osaba*, *umea* eta *andereño,* gizaki-izenen artean, *brun-brun*, *guau-guau*, *muu*, *tan-tan*, *bee, kua-kua*[8]*, txakurra, motoa* eta *erlojua,* izen arrunten artean*, eman* eta *jo,* aditzen artean*,* eta *ez* eta *agur* sailkatzeko zailak diren hitzen artean. Ez dago ez adberbiorik, ez adjektikorik, ezta morfologia-markarik ere.

[8] Gauza jakina da hasieran haurrak onomatopeiak darabiltzala inguruko hainbat objektu eta abere izendatzeko.

Haurren hitz-ekoizpena zabaldu egiten da 12tuk 15 hilabetera bitartean, 6. taulan ikus daitekeen bezala. Nabarmena da izenen gehiengoa; hala ere, haur apur batzuk aditzak ekoizten ere hasi direla esan daiteke. Adjektiborik, adberbiorik eta besterik ia ez da agertzen.

*6. taula. 12tik 15 hilabete bitarteko haurren hiztegian gehien agertzen diren hitzak (parentesi artean ekoizleen ehunekoa, 253 haurretatik) (Barreña eta García, 2009).*

| | |
|---|---|
| ***Izenak*** | *guau-guau (46), muu (27), brun-brun (25), kua-kua, ura (14), txakurra (12), txupetea (10), bee (9), argia, gaileta (8), ogia, zapatak (6), biberoia, pilota, ahatea (5), behia, hartza (4)* |
| ***Izen bereziak*** | *aita (52), ama (45), amama (20), aitita (15)* |
| ***Aditzak*** | *jo (7), eman (4), bota (4), jan (3), amaitu (2)* |
| ***Adjektiboak*** | *guapo (2)* |
| ***Adberbioak*** | *han (3), hemen, hor (1)* |
| ***Izenordainak*** | *hura (4), hau, ni (2)* |

Nabarmena gertatzen da, ostera, 16tik 30era bitarteko haurren hitz-ekoizpenean hazten den hitz-kategorien aniztasuna, 7., 8. eta 9. tauletan ikusten den bezala. Garapena errazago ikusi ahal izateko hiru adin-multzotan bereizi da aldi hau: 16. hilabetetik 20.era, 21.etik 25.era, eta 26.etik 30.era eta hitzak kategorien arabera daude multzoturik.

Hitz-kategorien agerrera-hurrenkera honela laburbil daiteke: izenak, aditzak, adberbioak, adjektiboak eta, azkenik, morfologia-markak.

*7. taula. 16tik 20 hilabetera bitarteko haurren hiztegian gehien agertzen diren hitzak (parentesi artean ekoizleen ehunekoa, 258 haurretatik) (Barreña eta García, 2009).*

| | |
|---|---|
| ***Izenak*** | *guau-guau* (86), *muu* (78), *brun-brun* (70), *ura* (68), *kua-kua* (55), *ogia*, *zapatak* (46), *txupetea* (46), *gaileta* (45), *jogurra*, *patata*, *pilota*, *txakurra* (40), *argia* (39), *hartza*, *ahatea* (35), *ahoa* (34) |
| ***Gizaki-izenak*** | *aita*, *ama* (93), *amama* (67), *aitita* (59), *umea* (39), *izeba* (30). |
| ***Hitz bereziak*** | *agur* (61), *ez* (60), kaka (49), *bai* (46), *txiza* (30) |
| ***Aditzak*** | *eman* (42), *bota* (35), *lo egin* (30), *apurtu* (28), *jo* (26), *hartu* (25) |
| ***Adjektiboak*** | *beroa* (22), *handia* (16), *bustia*, *txikia* (14), *zikina* (12) |
| ***Adberbioak*** | *hemen* (38), *ondo* (20), *gero* (4) |
| ***Izenordainak*** | *hau* (32), *ni* (24), *nirea* (15), *zu* (8) |

*8. taula. 21etik 25 hilabetera bitarteko haurren hiztegian gehien agertzen diren hitzak (parentesi artean ekoizleen ehunekoa, 319 haurretatik) (Barreña eta García, 2009).*

| | |
|---|---|
| ***Izenak*** | *guau-guau* (96), *muu* (91), *ura* (89), *miau* (86), *ogia* (83), *txakurra* (81), *begia* (80), *bee*, *ahoa* (79), *zapatak*, *gaileta*, *patata* (78), *argia*, *arraina*, *jogurra*, *kua-kua* (77), *eskua*, *txupetea* (75), *pilota, hartza*, *kotxea* (74), *behia*, *katua* (73), *burua*, *sudurra* (72), *belarria* (70), *etxea*, *txoria* (68), *atea* (67), *euria* (66), *ardia, giltza, trena* (65) |
| ***Gizaki-izenak*** | *aita*, *ama* (97), *amama* (89), *aitita* (86), *umea* (68), *zaintzailearen izena* (65), *izeba* (64) |
| ***Hitz bereziak*** | *agur* (92), *ez* (89), *bai* (88), kaka (76), *txiza* (65) |
| ***Aditzak*** | *bota* (77), *eman* (71), *apurtu* (66), *etorri*, *lo egin* (64), *jan* (61), *hartu* (60), *jo*, *saltatu* (57) |
| ***Adjektiboak*** | *beroa* (61), *handia* (58), *bustia* (56), *txikia* (53), *zikina* (48) |
| ***Adberbioak*** | *hemen* (81), *ondo* (58), *gero* (31) |
| ***Izenordainak*** | *hau* (66), *ni* (63), *nirea* (48), *zu* (32) |

*9. taula. 26tik 30 hilabetera bitarteko haurren hiztegian gehien agertzen diren hitzak (parentesi artean ekoizleen ehunekoa, 395 haurretatik) (Barreña eta García, 2009).*

| | |
|---|---|
| ***Izenak*** | *ura (97), guau-guau, muu (96), begia, ogia, miau (95), txakurra, ahoa, kotxea (94), eskua, katua, patata (93), atea, burua, jogurra (92), baloia, etxea, gaileta, sudurra (91), botak, argia, behia, trena, zapatak (90), arraina, belarria, eskola/ikastola, ilea, txoria, bee (89), esnea, globoa, ipuina, pilota (88), euria, zaldia (87), giltza, ipurdia, tortilla, kua-kua (86)* |
| ***Gizaki-izenak*** | *aita*, *ama* (99), *amama* (98), *aitita* (95), *umea*, *zaintzailearen izena* (85), *gizona*, *izeba*, *pailazoa* (80) |
| ***Hitz bereziak*** | *agur*, *bai*, *ez* (97), *kaka* (91), *txiza* (86) |
| ***Aditzak*** | *bota* (94), *etorri* (87), *jan* (86), *eman* (85), *apurtu* (84), *hartu*, *jo*, *lo egin* (83), *abestu*, *itxi*, *kendu* (81), *jausi*, *eseri*, *ikusi*, *saltatu* (80) |
| ***Adjektiboak*** | *handia* (89), *beroa* (86), *bustia* (82), *txikia* (81), *zikina* (77) |
| ***Adberbioak*** | *hemen* (91), *ondo* (83), *gero* (70) |
| ***Izenordainak*** | *ni* (88), *hau* (82), *nirea* (80), *zu* (67) |

## 3.4. Hiztegiaren garapenaz jabekuntza elebidunean

Haur elebidunek elebakarrek baino hiztegi murritzagoa duten aurreiritziaren aurka, azken urteetan egin diren zenbait ikerketak haur elebidunak elebakarrak adinako hitz-kopuruaz jabetzen direla erakutsi dute, hots, ez dutela hiztegiaren bereganatzean erritmo motelagorik (Pearson *eta beste*, 1995, 1997; Hamers eta Blanc, 2000). Alderaketa hizkuntza bakoitzean eginez gero, baliteke A hizkuntzako elebakarrak elebidunak baino hitz gehiago ekoiztea A hizkuntzan, baina elebidunaren A eta B hizkuntzetako kontzeptuen zenbaketa[9] eginez gero, gehienetan elebidunaren alde ateratzen da kontua.

[9] Haur elebidunaren kontzeptu ezberdinak zenbatzen dira, eta ez hizkuntza bietako hitz guztiak. Hau da, A hizkuntzan haurrak *txakurra* badio eta B hizkuntzan *chien,* kontzeptu bakartzat jotzen da.

Bestalde, Juan-Garau eta Pérez-Vidal (2001) eta Pearson *eta beste* (1995, 1997) ikertzaileek haur elebidunak bereganatutako hitz-kopurua hizkuntza bakoitzean haur horrek izan duen entzunaldiarekin erlazionatuta dagoela ondorioztatu dute: zenbat eta entzunaldi handiagoa A hizkuntzan, hitz-kopuru handiagoa hizkuntza berean. Antzeko zerbait ikusi da haur euskaldunekin eginiko ikerketa batean (Barreña, Ezeizabarrena eta Garcia, 2011a; Barreña, Ezeizabarrena eta Garcia, 2011b).

Azken ikerketa horretan bi milatik gora haurren datuak bildu dira, elebakarrenak[10] zein elebidunenak. Lau taldetan bereizi dira haurrek entzundakotik euskarak euren inguruan duen maiztasunaren arabera: a) elebakarrak (entzundakoan euskararen presentzia %90tik gorakoa denean), b) euskara hizkuntza nagusitzat duten elebidunak (entzundakoan euskara %60tik %90era bitartekoa denean), c) elebidun orekatuak (entzundakoan euskara %40tik %60era bitartekoa denean), eta d) erdara hizkuntza nagusitzat duten elebidunak (entzundakoan euskara %10etik %40era bitartekoa denean). Aztertutako adin-tartea 1;00 – 4;00koa da, eta horretarako KGNZ I, KGNZ II eta KGNZ IIIko datuak erabili dira. KGNZ Ien eta KGNZ IIn haurrek ekoitzitako hitzak zenbatu dira, baina KGNZ IIIan haurrek ekoitzitako hitz-kopuruekin proiekzioa eginda lortu dira 2;06tik gorako datuak. Gainera argi utzi behar da ez direla haurrek ekoizten dituzten hitz guztiak zenbatzen, KGNZ zerrendetan agertzen direnak baizik.

*1. grafikoa. Haur euskaldunek hitz-zerrendatik ekoizten dituzten hitz-kopuruak 1;00 adinetik 4;00 adinera bitartean, entzundakoan euskararen maiztasunaren arabera eratuta (Barreña, Ezeizabarrena eta Garcia, 2011b).*




[10] Elebakarrak ziren behintzat datu-bilketa egin zenean.

Lehen grafikoan ikus daitekeen legez, entzundakoan euskararen maiztasunak ez du eragin handirik haurrek 2;00 adina duten arte, baina ondoren nabarmena da faktore horren eragina hitz-ekoizpenean. Gainera, adinak aurrera egin ahala, faktore honen eragina handiagoa da eta hitz-ekoizpenen arteko aldea ere bai, neurtutako tartean bederen. Ildo horretatik esan behar da, 2;06 adinarekin entzundako euskararen kantitatea faktoreak haur-multzoen artean dauden aldeen %5 azaltzen duela, 3;00 adinarekin %20 eta 4;00 adinarekin %30.

Halere, gogoan izan behar da ikerketa honetan ez zela neurtu elebidunek beste hizkuntzan ekoitzitakoa, hots, erdaran ekoitzitakoa.

## 4. Morfologiaren garapena aroz aro

Atal honetan ondoko gaiak arakatuko dira: lehendabizi, hitz biko esalditxoen ekoizpena; bigarrenez, hitz-kopuruaren eta morfologiaren ekoizpenen arteko erlazioa; hirugarrenez, morfologiaren agerreraren urratsik behinenak; laugarrenez, izen-morfologiaren eta aditz-morfologiaren agerrera eta garapena; bosgarrenez, menpeko esaldien agerrera, eta seigarrenez elebidunen garapen morfologikoa.

### 4.1. Hitz biko esalditxoen ekoizpena

Hamazortzi hilabeteren inguruan haurra hitz biko esalditxoak ekoizten hasiko da, *aitita apapa* edo *bota ez* bezalako ekoizpenak eginez. Ikertzaile askok sintaxiaren garapenaren hasieratzat jo dute une hau, nahiz beste batzuek sintaxiaren lorratzik ez duten ikusten hitz biko aroaren hasiera-hasieran.

KGNZ tresnaren egokitzapenean gurasoei ea seme-alabek hitz biko ekoizpenik egiten zuten galdetu zitzaien. Bigarren grafikoan bildu dira emaitzak, euskarazkoak (Barreña *eta beste*, 2008) zein gaztelaniazkoak (López-Ornat *eta beste*, 2005). Bertan ikus daitekeen legez, 16 hilabeterekin hasten dira halakoak ekoizten haurretako batzuk (%4k) eta dagoeneko 26 hilabeterekin gehienek egiten dituzte (%90ek). Gaztelania garatzen diharduten haurren bilakaera oso antzekoa dela esan daiteke.

*2. grafikoa. Hitz biko esalditxoen garapena euskaraz eta gaztelaniaz, ehunka haurren datuen arabera (Barreña eta beste, 2008; López-Ornat eta beste, 2005).*




Sintaxia erabiltzen hasita ote daudenentz saihetsirik, nabaria da haurrak esalditxo berean bi hitz lotzen hasten denean ikaragarrizko urratsa egiten duela bere hizkuntza-garapenean.

### 4.2. Hiztegiaren tamaina eta morfologiaren agerreraren arteko erlazioa

Hitz biko ekoizpenak egiten hasteko, haurrak gutxienez 50 hitz diferente erabiltzeko gai izan behar duela ikusi da (Barreña *eta beste*, 2006). Ildo honetatik, bada hipotesi interesgarri bat gramatikaren garapena hiztegiaren garapenarekin lotzen duena. Masa lexiko kritikoaren hipotesi hori ingelesaren jabetzea aztertuta eraiki zen eta zera dio, haurrak 300 eta 400 hitz bitarteko masa lexikoa bereganatuta izan behar duela morfologia ekoizten hasteko (Bates *eta beste*, 1994; Marchman *eta beste*, 2004).

Euskararen jabetzean ere antzeko erlazioa baietsi da hiztegiaren eta gramatikaren garapenen artean, hots, haurrak hitz-kopuru minimo zehatza erabili behar duela horren gainean morfologia-ezaugarriak ekoizteko edo sintaxia gauzatzeko (Barreña *eta beste*, 2006).

Halere, ikerketa horretan ondoko proposamenak ere bildu dituzte egileek: a) hitz-masa edo hitz-kopuru kritikoaz gain, garrantzitsua da lexiko horren barne-eraketa, hots, hitz-kategorien arteko erlazioa; b) 100 unitateko masa lexikoarekin izen-morfologia garatzen hasten da; c) 300 unitateko masa lexikoa izan arte izenak dira nagusi; d) 300 unitateko masa lexikoarekin aditz-morfologia garatzen hasten da; e) behin kopuru hori gaindituta, aditzen ehunekoa nabarmen igotzen da eta 400 unitateko masa lexikoa erdiestean aditzak izenei gailentzen zaizkie proportzioan (KGNZ-ko hitz-zerrenda erreferentziatzat harturik); eta abar.

### 4.3. Morfologiaren agerrera urratsez urrats

Hasiera batean badirudi haurrek ez dutela morfologia-markarik ekoizten. Nolanahi ere, kontu honi buruz gogoeta batzuk egitea komeni da, hasiera-hasierako hainbat ekoizpeni begiratuta (5):

(5) (a) argia E 1;05 (b) eto(r)ri O 1;07
(c) goazen! KGNZ 1;04 (d) hau mumua P 1;11

Lehenetako izenek sarri izaten dute *–a* artikulua erantsita (5a,d). Halere, argi dago haurraren ekoizpena zehatz aztertuta hasieran *argia* eta *mumua* bezalako hitzak unitate bakartzat hartzen dituela, eta ez dakiela *–a* marka morfologikoa eranzten, inguruak horrela egin dezan eskatzen dionean.

Aditzei buruz, beste horrenbeste esan daiteke. Hasierako aditz-formak *etorri* bezalakoak dira, eta euskararen gramatikan horri *aspektu burutua* deitzen zaion arren, ez dirudi haurrak aspektuaren kontua bereganatuta duenik hain goiz.

*Goazen* eta *etaki* (*ez dakit*) bezalako goizetiko ekoizpenak ere formulatzat hartzen dira, eta ez morfologiaren garapenaren islatzat edo adierazletzat.

Hasieran, bada, haurraren ekoizpenean ez da morfologiarik nabaritzen. Morfologia garatzean, izen-morfologia ekoizten hasiko da haurra. Ondoren, oraindik izen-morfologia guztiz bereganatuta ez duenean, aditz-morfologia erabiltzen hasiko da. Azkenean, menderakuntzaren arloan abiatuko da (ikus 9. taula).

*9. taula. Morfologia-marken lehen ekoizpenak luzetara aztertutako hiru haur euskaldun elebakarrengan (B, E eta O) eta bi elebidunengan (M eta P) (Barreña, 1995; Zubiri, 1997; Barreña, 2000)*

| | B | E | O | M | P |
|---|---|---|---|---|---|
| **IZEN-MORFOLOGIA** | | | | | |
| NON; *–n* marka | 1;06 | 1;11 | 1;11 | 1;09 | 2;02 |
| NOREN; *–en* marka | 1;06 | 2;01 | 2;00 | 2;02 | 2;03 |
| NORK; *–k* marka | 1;06 | 2;02 | 2;00 | 2;00-01 | 2;05 |
| NORA; *–ra* marka | 1;06 | 2;01 | 2;00 | 2;02 | 2;07 |
| PLURALA; *–k* marka | 1;06 | 2;01 | 2;00 | 2;04 | 2,07 |
| NORI; *–i* marka | 1,09 | 2;03 | 2;00 | 2;01 | 2,03 |
| **ADITZ-MORFOLOGIA** | | | | | |
| Lehen aditzak: *etorri* | 1;06 | 2;01 | 2;00 | 1;09 | 1;11 |
| Subjektua: *naiz, dut* | 1;09 | 2;03 | 2;02 | 2;00 | 2;04-05 |
| Zehar-objektua: *dizut* | 2;01-02 | 2,09 | 2;04 | 2;04 | 3;00 |
| Osagarri zuzena: *ditut* | 2;08 | | 2;06 | 2;09 | 2;10 |
| Iraganeko adizkiak: *zen* | 2;03-04 | 2;07-08 | 2;07 | 2;10 | 2;10 |
| Subjuntiboa/Agintera[2] | | | 2;10 | 2;11 | |
| **MENPERAKUNTZA** | | | | | |
| Kausakoak: *eta/ bait-* | 2;04 | 2;07 | 2;04 | 2;07 | 2;11 |
| Konpletiboak: *-ela* | 2;05 | 2;06 | 2;04 | 2;11 | 2;04 |

[11] Indikatibokoak ez diren adizkiak, alegia.

Argi dagoenez, goiko taulari begiratuta, goian aipatu diren urratsak oso orokorrak dira, baina haur guztiengan ikus daitezke, ekoizpen-adinak ezberdinak diren arren. Halaber, era nabarmenean igar daiteke urrats zehatzagoak muga daitezkeela.

Bestalde, azpimarragarria da garapenean zehar haurrek helduentzat akatsak diren ekoizpenak ere egiten dituztela (ikus 6), baina euren ekoizpena zuzentzeko gai direla ere esan daiteke (ikus 7). Azken jokabide horrek argi uzten du haurrak erdiesten duen gramatika-arauen baitaratzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| (6) | a. | Egoitzek eta Unai(k) | E 2;03 |
| | b. | hori nik egin doten (*nuen*) | O 3;01 |
| | c. | ze deko (*dekoz, dauzka*) granoak | M 2;05 |
| (6) | a. | bai, ez dekot, nik ez dekotez, ez, nik ez dekot anai txikirik[12] | O 2;08 |
| | b. | hori ez dau, horrek ez dau erueten[13] | O 2;04 |
| | c. | hau ka-ka-ka itten do honek[14] | E 2;04 |

### 4.4. Izen-morfologiaren eta aditz-morfologiaren garapena

Izen- eta aditz-morfologiaren garapenak zehatzago ikustearren, 10. eta 11. tauletan hainbat morfologia-markaren berri ematen da. 10. taulan datuak haurren adinaren arabera eratu dira, 11.ean, ostera, haurrek erabiltzea erdietsi duten hiztegiaren tamainaren arabera. Datu guztiak KGNZ tresna egokitzean jasotakoak dira (Barreña *eta beste*, 2006, 2007, 2009), milaka haurren ekoizpenekin.

*10. taula. Morfologia-marken agerrera adinaren arabera (Barreña eta beste, 2006, 2007, 2009).*

| *Adina (hilabeteak)* | *Izen-morfologia* | *Aditz-morfologia* |
|---|---|---|
| 1;08 | *-an*, *-ra*, *-k* | |
| 1;09 | *-aren* | |
| 1;10 | *-ari* | *da* |
| 1;11 | *-z*, *-arekin/-agaz* | *dut* |
| 2;00 | *-arentzat* | *naiz*, *–tzen* (burutugabea) |
| 2;01 | *-tik*, *-ko*, *-k* plurala | *du* |
| 2;02 | | *duzu*, *zait*, *-ko* (etorkizuna) |
| 2;03 | *-zkoa* | *zara*, *zaio* |
| 2;04 | | *gara*, *dira*, *zaizu*, *diot* |
| 2;05 | | *dizut* |

12 Durangaldeko hizkeran: *bai, ez daukat, ez dauzkat, ez, nik ez daukat anaia txikirik.*

13 Aldaera berean: *hori ez du, horrek ez du eroaten.*

14 Goizuetako hizkeran: *hau ka-ka-ka egiten du honek.*

Haurren adinaren arabera osatutako goiko taulan, lehenetako markak espazioa adierazten dutenak *(-an, -ra)* eta ergatiboarena dira (*-k*). Gero, apurka-apurka hasten dira gainerakoak agertzen. Azpimarratzekoa da ergatiboaren (*-k*) eta pluralaren (*-k*) agerreraren artean 5 hilabeteko tartea dagoela.

Nabarmena da izen-morfologia aditz-morfologia baino goizago agertzen dela, hiruzpalau hilabete lehenago. Haurra zerbaitez jabetu dela baiesteko ikertzaileek arlo bereko bi marka ekoiztea eskatzen dute. Esaterako, subjektuarekiko komunztaduraz jabetu dela baiesteko ez da nahikoa izaten *da* adizkia erabiltzea (hirugarren pertsonari dagokion forma), beharrezkotzat jotzen dute beste pertsona batekiko komunztadura agertzen duen adizkiren bat ere ekoiztea. Irizpide horren arabera, subjektuarekiko komunztaduraz ez dira 23, 24 edo 25 hilabete izan arte jabetzen, *da* eta *naiz* edo *du* eta *dut* adizki-bikote *kontrajarriak* erabiltzen hasi arte.

11. taula. *Morfologia-marken agerrera haurraren hiztegiaren tamainaren arabera (Barreña eta beste, 2006, 2007, 2009).*

| *Hiztegiaren tamaina* | *Izen-morfologia* | *Aditz-morfologia* |
|---|---|---|
| 101-200 | *-k* (ergatiboa), *-ari, -aren, -an, -ra* | |
| 201-300 | *-z, -arekin/-agaz, -arentzat, -k* (plurala) | *-tzen* (burutugabea) |
| 301-400 | *-ko, -tik* | *-ko* (etorkizuna), *da/naiz, du/dut* |
| 401-500 | *-zkoa, -koa* | *zait/zaio/diot* |
| 501-600 | *-raino* | *ditut* |
| 601-703 | *-rantz* | *nintzen/zen/nuen/zuen/nion/nizun* |

Hiztegiaren tamainaren araberako taulan, 11.ean, nabarmen ikus daitezke ondokoak:

a) kasu-marka abstraktuak *(-k, -i, -en)* oso goiz agertzen dira, lehenetakoak izanik;

b) postposizioen artean *–an* eta *–ra* toki-markak dira goiztiarrenak;

c) pluralaren *–k* marka ergatiboarena baino beluago agertzen da;

d) aditz-morfologian aspektua goizago agertzen da pertsona-komunztadura baino (kontuan izan *–tzen* burutugabea forma burutuaren ostean datorrela haurraren ekoizpenean, eta beraz, burutugabea agertzean burutua/burutugabea bikotea baiets daitekeela, *etorri/etortzen* bikotea, alegia);

e) aditz-aspektuaren arloan ondokoa da agerrera-hurrenkera: burutua, burutugabea, etorkizuna (*etorri, etortzen, etorriko*);

f) komunztaduraren arloan, subjektuarekikoa da lehena; ondoren zehar-osagarriarekikoa dator eta, azkena, osagarriarekikoa da;

g) gramatika-pertsonei begiratuta hirugarrena izaten da lehena (*da*, *du*), ondoren lehena etorri ohi da (*naiz*, *dut*);

h) iraganeko adizkiak dira hurrengoak agertzen;

i) geroago hasten dira subjuntiboko formak, baldintzazkoak eta ahalerakoak agertzen, indikatiboa ez den aditz-moduren bati dagozkionak, alegia.

Euskararen garapenean ikusi den morfologiaren agerrera-hurrenkeraren oso antzeko hurrenkerak ikusi dira hizkuntza askotan. Esaterako, ohikoa izaten da aditz-morfologian ikusi den hurrenkera, aspektua – komunztadura – aldia; edo pertsona-komunztaduran antzeman dena: hirugarrena – lehena – bigarrena.

Baina zer gertatzen da geroago? Nola sendotzen dira bereganatutakoak haurrengan datozen hilabeteetan? Hori ikusteko, KGNZ-III galdetegian bildutako datuak erakutsiko dira, baina soilik elebakartzat har daitezkeen haurrenak, entzundakoan euskarak %90etik gorako presentzia duen haurrenak, alegia. Hurrengo tauletan, beraz, 2;06 adinetik 4;02 adinera bitarteko 567 haur euskaldun elebakarren emaitzak jaso dira, 12. taulan izen-morfologiarenak eta 13. taulan aditz-morfologiarenak.

*12. taula. Izen-morfologiaren erabilera 2;06-4;02 adin-tartean; kopuruak marka hori erabiltzen duen haurren ehunekoa adierazten du (iturria: KGNZ III[15]).*

| | 2;06-2;08 (72 haur) | 2;09-3;00 (122) | 3;01-3;04 (102) | 3;05-3;08 (118) | 3:09-4;00 (107) | 4;01-4;02 (46) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *-an* | 92% | 96% | 98% | 99% | 97% | 100% |
| *-ra* | 60% | 67% | 82% | 82% | 83% | 83% |
| *-agana* | 53 | 68 | 75 | 85 | 87 | 93 |
| *-raino* | 56 | 70 | 75 | 84 | 93 | 93 |
| *-tik* | 64 | 75 | 85 | 91 | 94 | 87 |
| *-z* | 76 | 79 | 89 | 96 | 92 | 96 |
| *-ekin/-gaz* | 57 | 65 | 83 | 86 | 83 | 91 |
| *-entzat* | 68 | 83 | 91 | 91 | 92 | 93 |
| *-ena* | 81 | 84 | 85 | 95 | 95 | 98 |
| *-koa* | 49 | 72 | 76 | 86 | 93 | 89 |
| *-zkoa* | 51 | 60 | 73 | 88 | 88 | 91 |
| *-k* (ergatiboa) | 67 | 74 | 77 | 86 | 84 | 83 |
| *-i* | 78 | 85 | 92 | 92 | 94 | 94 |
| *-k* (plurala) | 46 | 52 | 59 | 77 | 76 | 78 |

15 KGNZ III tresna eraikitze-prozesuan da; hemengo datuak, beraz, behin-behinekoak dira.

*13. taula. Aditz-morfologiaren erabilera 2;06-4;02 adin-tartean; kopuruak marka hori erabiltzen duen haurren ehunekoa adierazten du (iturria: KGNZ III)*

| Gramatika-ezaugarriak[3] | Marka | 2;06-08 (72 haur) | 2;9-3;00 (122) | 3;01-04 (102) | 3;05-08 (118) | 3;09-4;00 (107) | 4;01-02 (46) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A(spektua) burutugabea | *-tzen* | 64% | 76% | 85% | 90% | 90% | 96% |
| A irreala | *-ko* | 72 | 86 | 93 | 93 | 97 | 98 |
| S(ubjektua) | *da* | 83 | 85 | 91 | 92 | 94 | 96 |
| S | *dago* | 79 | 79 | 89 | 94 | 89 | 93 |
| S | *naiz* | 74 | 88 | 93 | 94 | 92 | 98 |
| S | *nago* | 85 | 82 | 97 | 91 | 90 | 96 |
| S | *zara* | 53 | 75 | 84 | 86 | 85 | 78 |
| Spl(urala) | *dira* | 39 | 53 | 72 | 78 | 87 | 76 |
| S[4] | *du* | 82 | 84 | 89 | 89 | 93 | 91 |
| S | *dut* | 89 | 93 | 97 | 98 | 94 | 96 |
| S | *duzu* | 49 | 70 | 83 | 88 | 85 | 78 |
| Spl | *dute* | 38 | 39 | 60 | 67 | 72 | 74 |
| S-ZO | *zait* | 58 | 74 | 83 | 88 | 90 | 89 |
| S-ZO | *zaio* | 42 | 58 | 75 | 79 | 84 | 91 |
| S-ZO | *zaizu* | 47 | 56 | 72 | 81 | 84 | 85 |
| S-ZO-OZ | *diot* | 53 | 76 | 82 | 91 | 90 | 93 |
| S-ZO-OZ | *dizut* | 40 | 57 | 81 | 83 | 89 | 89 |
| S-ZO-OZ | *dio* | 28 | 42 | 64 | 69 | 66 | 87 |
| Spl-ZO | *zaizkit* | 11 | 20 | 33 | 50 | 62 | 61 |
| S-OZpl | *ditut* | 25 | 30 | 54 | 69 | 72 | 72 |
| S-OZpl | *dauzkat* | 12 | 15 | 20 | 36 | 50 | 50 |
| S-ZO-OZpl | *dizkidazu* | 4 | 11 | 22 | 36 | 43 | 46 |
| S-OZ | *zaitut* | 10 | 19 | 33 | 38 | 36 | 46 |
| I(ragana)-S | *zinen* | 17 | 29 | 46 | 58 | 68 | 74 |
| I-S | *zenuen* | 19 | 20 | 30 | 47 | 52 | 48 |
| I-S-ZO | *zitzaion* | 17 | 17 | 32 | 47 | 58 | 54 |
| I-S-ZO-OZ | *nion* | 12 | 17 | 35 | 41 | 59 | 59 |
| I-S-ZO-OZpl | *nizkizun* | 3 | 5 | 11 | 25 | 37 | 28 |

Goiko emaitzak ikusita, ondorio hauek ekartzen dira morfologiaren garapena eta sendotzea laburbiltzeko:

a) oro har, izen-morfologiaren marka guztiak, gutxienez ikerketa honetan arakatutakoak, 3;08 adina izan aurretik sendo darabiltzate haurrek (>%80); salbuespena pluralaren *–k* marka da;

16 A (aspektua), S (subjektua), OZ (osagarri zuzena), ZO (zehar osagarria), pl (plurala, subjektuari edo osagarri zuzenari lotua), I (iragana).

17 Lan honetan NOR-NORK motako adizkietan, OZ singularreko hirugarren pertsonari dagokienetan (*dut, duzu, du, dugu, duzue, dute*), subjektuarekiko komunztadura baino ezin dela baietsi onartzen da eta, haatik, ez da uste haurren ekoizpenetan adizki hauek OZarekiko komunztadura erakusten dutenik.

b) garrantzitsua dirudi izen-morfologiaren arloan *–k* markaren erabilerarekin gertatzen denaz hausnartzea, ergatiboaren kasuan haurren %86k baitarabilte berau 3;08 adina izan aurretik, eta 4;02 adina dutenean ez da kopuru horretara heltzen marka bera plurala egiteko darabilen haurren ehunekoa;

c) garrantzitsua izan daiteke, baita ere, NORK eta NORI kasu-markekin gertatzen denaz ohartzea, biak baitira kasu abstraktuak (subjektua eta zehar osagarria markatzen dituztenak), baina zehar osagarriari dagokion *–i* marka goizago sendotzen da; baliteke kontua fonologikoa izatea, *–k* marka koda egongunean da-eta, baina baliteke beste arrazoi batzuk ere izatea, hala nola, entzundakoan *higatuagoa* izatea marka hori, hots, haurrak beti ez entzutea;

d) aditz-morfologiaren arloan nabarmen gertatzen da oraindik 4;02 adinarekin hainbat gramatika-ezaugarri edo morfologia-marka ez daudela sendotuta;

e) bestalde, nabarmenagoa gertatzen da mailakaketa aditz-morfologiaren arloan, lehenago ere aipatu den oso antzera; subjektuarekiko komunztadura adierazten duten markak (lehen pertsona versus hirugarren pertsona; *da, dago* versus *naiz, nago*) 3;00 adina izan aurretik daude sendotuta; adin berean aspektuaren kontua ere sendotuta dagoela esan daiteke, irreala adierazteko *–ko* markaren erabilerak erakusten duen legez; 3;04 adina dutenerako subjektuarekiko komunztadura adierazten duen bigarren pertsonaren adizkiak ikus daitezke sendo, *zara* eta *duzu*, alegia; adin berean zehar-osagarriarekiko komunztadura derakusaten adizkiak ere sendo darabiltzate haurrek (*zait*, *diot*); subjektu pluralak adierazteko formak 4;00 adinarekin sendotzen hasten dira (*dira*); ondoren datoz, osagarri zuzena pluralean dela islatzen dituzten adizkiak (*ditut*), iraganeko adizkiak (*zinen, zitzaion, zenuen, nion*), NOR-NORI-NORK pluraleko adizkiak (*dizkidazu*), NOR-NORK adizkiak (*zaitut*[18]) eta iraganeko NOR-NORI-NORK pluraleko adizkiak (*nizkizun*);

f) datuek nabarmen uzten dute hainbat umek euskara garatzen jarraitu behar dutela 4;00 adinetik aurrera; haatik, eskolaren zeregina uka ezina gertatzen da zeregin honetan.

### 4.5. Menderakuntza-marken agerrera

Morfologiaren inguruko kontuekin amaitzeko, 14. taulan menderakuntza-marken agerreraren datuak jaso dira. Taula horretan luzetara jarraitutako bost haurren datuak daude eta lehen ekoizpenak datatu dira

[18] Osagarri zuzena lehen edo bigarren pertsona denean.

*14. taula. Menderakuntza-marken ekoizpena luzetara jarraitutako bost haur euskaldunengan, 3 elebakar (B, E, O) eta 2 elebidun (P, M) (Barreña, 2000).*

| | B | E | O | P | M |
|---|---|---|---|---|---|
| Moduzkoa (*-ta*) | 2;06 | 2;05 | 2;00 | 2;03 | 2;02 |
| Nominalizazioa (*-t(z)e)* | 1;09-2;01 | 2;03-04 | 2;03-06 | 2;05 | 2;03-08 |
| **Adizki jokatuekin** | | | | | |
| Kausazkoa (*eta/ bait-*) | 2;04 | 2;07 | 2;04 | 2;07 | 2;11 |
| Konpletiboa (*-ela*) | 2;05 | 2;06 | 2;04 | 2;11 | 2;04 |
| Zehargaldera(*-(e)n*) | 2;05 | 2;08 | 2;05 | 2;09 | 2;03 |
| Kausazkoa (*ze...*) | | | 2;05 | 2;09 | 2;03 |
| Kausazkoa (*-(e)lako*) | 2;09 | | 2;06 | 3;02 | 2;11 |
| Erlatibo izendua (OZ/S) (*-ena/k*) | | 2;10 | 2;06 | 2;11 | 2;10 |
| Denborazkoa (*-enean*) | 2;06 | 2;11 | 2;09 | 3;02 | |
| Baldintzazkoa (*ba-*) | 2;11 | 2;11 | 2;10 | | 3;02 |
| Erlatiboa (*-(e)n*) | | | 2;11 | 3;03 | 3,00 |

Menderakuntza-marken arloan ere nabarmena da mailakaketa. Adizki jokatuei eransten zaizkien markekin gertatzen denari begiratuta, *–ela* konpletiboa, *-eta*, *bait-* eta *ze* kausazkoak eta *–en* zehargaldera dira goizetikoenak. Geroago ikus daitezke *–elako* kausazkoa, *–ena/-enak* erlatibo izenduak eta *–enean* denborazkoa. Nabaria da *ba-* baldintzazkoa eta *–en* erlatiboa zerrenda horretako azkenak direla.

### 4.6. Morfologiaren garapena jabetze elebidunean

Luzetara jarraitutako haur elebakar eta elebidunen datuek erakutsi dutenez (Barreña, 1995; Ezeizabarrena, 1996; Zubiri, 1997; Elosegi, 1998; Almgren, 2000), ez dago alde nabarmenik haur elebakar eta elebidunen jabetze-prozesuan. Halere, kontuan izan behar da ikerketa horietan aztertutako haur elebidunek bi hizkuntzak entzun zituztela jaiotzatik bereizita eta era orekatuan eta, beraz, baieztapen horrek ez duela balio edozein elebidunentzat, baizik eta 2H1 prozesua jarraitu dutenentzat.

Hiru haur elebakar eta bi elebidunen zenbait gramatika-markaren ekoizpen-adinak jaso dira 15. taulan: marka bakoitzean lehen ekoizpena noiz gertatu zen, marka hori batzuetan (inoiz) erabiltzen duten unea, eta marka horren sendotzea (>%80) gertatzen deneko unea. Taula horretan ikus daitekeen legez, egon badira ezberdintasunak, baina zaila dirudi baiestea ezberdintasunok zeren arabera gertatzen diren, haur elebakarren artean ere badaudelako. Gerta daiteke ezberdintasunak umeen aldakortasunagatik izatea. Era guztietan, ez dirudite garrantzi handikoak,

eta horko bost haurrak ohiko prozesuan ari direla antzeman daiteke. Berriro komeni da esatea haur elebidun hauek jaiotzatik ari direla hizkuntza biak bereizita eta maiztasun orekatuaz entzuten.

*15. taula. Zenbait gramatika-markaren ekoizpen-adinak haur euskaldun elebakar eta jaiotzetiko elebidunengan (Barreña, 1995; Zubiri, 1998).*

| | -k plurala | | | -k ergatiboa | | | -ri datiboa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1.a | Inoiz | >%80 | 1.a | Inoiz | >%80 | 1.a | Inoiz | >%80 |
| **Haur elebakarrak** | | | | | | | | | |
| O | 2;00 | 2;02 | 2;03 | 2;00 | 2;03 | 2;04 | 2;00 | 2;00 | 2;00 |
| E | 2;01 | 2;02 | 2;02 | 2;01 | 2;02 | 2;02 | 1;11 | 2;02 | 2;03 |
| B | 1;06 | 1;06 | 1;06 | 1;06 | 1;08 | 1;10 | 1;09 | 1;09 | 1;09 |
| **Haur elebidunak** | | | | | | | | | |
| M | 2;04 | 2;05 | 2;05 | 1;09 | 2;01 | 2;06 | 2;01 | 2;02 | 2;03 |
| P | 2;04 | 2;05 | 2;05 | 2;05 | 2;07 | 2;09 | 2;07 | 2;07 | 2;07 |

Baina zer gertatzen ote da haurrek ez dituztenean hizkuntza biak jaiotzatik entzuten? Edo ez dituztenean beti bereizita eta era orekatuan entzuten? Ikerketa gutxi burutu da halako egoeretan ari diren haur elebidunekin.

KGNZ tresna egokitzean gurasoei euren seme-alabek entzuten z(it)u(z)ten hizkuntza(k) kuantifikatzeko eskatu zitzaien, eta horrela hiru haur-talde bereizi zituzten ikertzaileek[19]: a) elebakarren taldea (euskara %90etik gora entzuten zutenena), b) euskara gaztelania edo frantsesa baino kantitate handiagoan entzuten zuten elebidunen taldea (euskara %60tik %90era entzuten zutenena) eta c) gaztelania edo frantsesa euskara adina edo gehiago entzuten zuten elebidunen taldea (euskara %60tik behera entzuten zutenena). Bestetik, euren seme-alabek ekoitzitako hiru esaldi luzeenak idazteko ere eskatu zitzaien. Hirugarren grafikoan ikus daiteke 2;04tik 2;06ra bitarteko haurren artean nabarmena dela euskara gutxien entzuten duten haurrekiko aldea haurrek aldi horretan ekoitzitako esaldien luzera neurtzean (Barreña *eta beste*, 2008, 2009).

[19] Gurasoek eskainitako datuen arabera, haurrak entzundakotik zenbateko ehunekoa duen euskaraz eta zenbatekoa erdaraz ondoriozta daitezke. Gero hiru edo lau haur-talde bereiztea, entzundako euskararen kantitatearen arabera, ikertzaileen irizpideek erabakitzen dute.

*3. grafikoa. Euskaraz ekoitzitako esaldien luzera, haurrek entzuten duten euskara kantitatearen arabera (Barreña eta beste, 2008, 2009).*




Ikerketa horretan antzeko emaitzak bildu zituzten morfologia-marken ekoizpena azterturik: elebakarren eta euskara %60tik gora entzuten duten elebidunen ekoizpenen artean ez da alderik 2;06 adina izan arte, baina aldea nabarmena da euskara %60tik behera entzuten duen elebidunen taldearen ekoizpenarekin, lexikoan, morfologian zein sintaxian.

Halere, lehenago ikusi den bezala, hiztegiaren ekoizpenean, aldeak aurkitu dituzte talde guztien artean, entzundako euskararen kantitatearen arabera, 2;06 adinetik aurrera, eta adinean aurrera egin ahala, aldeak nabarmenagoak izan dira (ikus 3.4. azpiatala).

Badira beste hainbat ikerketa interesgarri arlo honetan, eta horietako beste bat erakutsiko da hemen, azpiatal hau bukatzeko. Ikertzaileek bi haur-talderen narrazio berberaren ekoizpenak aztertu dituzte, euskaraz eta gaztelaniaz, haurrek 5 eta 8 urte izan zituztenean. A taldeko haurrek 5 urte izan arte oso harreman mugatua izan zuten gaztelaniarekin, etxean eta eskolan euskara baino ez zuten entzuten eta; B taldekoek, ostera, etxean gaztelania entzuten zuten baina Lizarrako ikastolan goiz murgildu ziren euskaran. Ikertzaileek hitz-hurrenkera aztertu zuten, aditzak (A) eta osagarri zuzenak (O) esaldian dutena, gauza jakina baita gaztelaniaz AO hurrenkera dela nagusia, eta euskaraz OA zein AO hurrenkerak erabiltzen direla narrazioetan (Barreña eta Almgren, agertzeko).

Ikerketa horretan bildutako datu orokorretan ikus daitekeen bezala (16. eta 17. taulak), ondorio nagusi hauek proposa daitezke: a) haur guztiek erakusten dute hizkuntza biak ezberdintzen dituztela[20]; ildo honeta-

[20] Hemen jaso diren tauletan taldeen datuak jaso dira, baina ikerketan, horiez gain, banakako azterketa ere egiten da.

tik, nabarmena da gaztelaniaz AO hurrenkera dela erabiliena eta OArik ez dela; aldi berean, euskaraz OA den arren hurrenkera erabiliena AO hurrenkera ere sarri darabilte; b) euskarazko ekoizpenetan etxean gaztelania entzuten duen haur-taldeak nabarmen egiten du gora OA hurrenkera aukeratzekoan 8 urte duenean (baina kontuan izan 5 urterekin ere OA hurrenkera dela nagusi euskaraz, gaztelaniaz ez bezala); c) etxean euskara entzuten duten haurrek zailtasun handiak dituzte 5 urterekin zerbait gaztelaniaz kontatzeko, nahiz ulertu duten ipuina; baina ipuina gaztelaniaz kontatzeko gai diren apurrek AO gaztelaniazko hurrenkera tipikoa darabilte (%85); d) etxean euskara entzuten duten haurrek 8 urterekin AO hurrenkeraren erabilera ia esklusiboa egiten dute gaztelaniazko esaldi deklaratiboetan.

*16. taula. OA, ezOA/AO eta AO hurrenkeren datu absolutuak eta ehunekoak (parentesi artean) euskarazko esaldi deklaratiboetan, etxean entzundako hizkuntzaren eta adinaren arabera (Barreña eta Almgren, 2012an agertzeko).*

| Etxeko hizkuntza | OA | ezOA/AO | AO |
|---|---|---|---|
| Gaztelania etxeko hizkuntza, 5 urte, (30 haur) | 186 (53) | 12 (3.4) | 152 (43.4) |
| Gaztelania etxeko hizkuntza, 8 urte, (30 haur) | 388 (82.9) | 27 (5.8) | 57 (11.3) |
| Euskara etxeko hizkuntza, 5 urte, (19 haur) | 116 (73.9) | 4 (2.5) | 37 (23.5) |
| Euskara etxeko hizkuntza, 8 urte, (19 haur) | 198 (79.5) | 16 (6.4) | 35 (14.1) |

*17. taula. OA, (O)loA eta AO hurrenkeren datu absolutuak eta ehunekoak (parentesi artean) gaztelaniazko esaldi deklaratiboetan, etxean entzundako hizkuntzaren eta adinaren arabera (Barreña eta Almgren, 2012an agertzeko).*

| Etxeko hizkuntza | OA | (O)loA | AO |
|---|---|---|---|
| Gaztelania etxeko hizkuntza, 5 urte, (30 haur) | 4 (0.6) | 22 (3.1) | 680 (96.3) |
| Gaztelania etxeko hizkuntza, 8 urte, (30 haur) | 2 (0.3) | 36 (4.9) | 696 (94.8) |
| Euskara etxeko hizkuntza, 5 urte, (19 haur) | 8 (14.5) | 0 (0.0) | 47 (85.5) |
| Euskara etxeko hizkuntza, 8 urte, (19 haur) | 1 (0.4) | 1 (0.4) | 264 (99.2) |

Haur horien datuekin eginiko beste ikerketetan ikusi da etxeko hizkuntza gaztelania zuten elebidunek euskaraz erdietsitako gaitasuna bost urterekin elebakarren parekoa dela adizkien erabileran (Ezeizabarrena eta Manterola, 2009; Ezeizabarrena, agertzeko). Halere, gogoan izan behar da etxean gaztelania entzuten duten haur horiek oso goiz hasi zirela euskara entzuten: goizen hasi zirenak urte bat izan aurretik, eta beranduen hasi zirenak hiru urte izan aurretik.

## 5. Sintaxiaren garapenaren aro nagusiak

Atal honetan euskararen gramatikaren garapenaren aro nagusiak zeintzuk diren azalduko da[21], eta aro horiek perpausaren egitura hierarkikoak bideraturik gertatzen direla ikusiko da. Era berean, aro bakoitzean haurrek gauzatzen dituzten gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-egiturak erakutsiko dira.

Horretarako, Barreñak (1994) haur euskaldun elebakar baten eta bi elebidunen datuak arakaturik eginiko azterketara joko da. Haurren datuak luzetara eginiko jarraipenean bilduak dira, 1;06 adinetik 4;00 adinera bitartean, gutxi gorabehera. Esan behar da elebidunek hizkuntza biak jaiotzatik entzun zituztela bereizita eta era orekatuan, 2H1 prozesua jarraituz, beraz. Hiru haurrek aro berak hurrenkera berean gauzatu dituzte, baina adin diferenteetan. Hemen azalduko diren adinak haur elebakarrari dagozkionak dira eta, hortaz, erreferentziatzat baino ezin dira hartu. Hona hemen arook, behinenak, halere:

a) Gramatika-ezaugarririk gabeko aroa (1;05-1;11). Hasieran, hitz bakarreko eta hitz biko esaldiak egitean, haurren ekoizpenak gramatika-ezaugarririk gabeak dira.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| (8) | a. Ju(r)gi(k) atara (du) | O 1;07 | b. popota apu(r)tu | O 1;06 |
| | c. Amane(ren) Pe(d)ro | O 1;08 | d. a(r)gia bapez | O 1;05 |
| | e. aita hemen | P 2;01 | f. hau nun? | O 1;10 |
| | g. ni punba | P 1;11 | h. hau ez | M 1;07 |

Adibideotan *–k* ergatiboaren marka, *-en* genitiboaren marka eta adizkiak falta dira, eta horrelakoak dira aro honetako adibide guzti-guztiak, morfología gabekoak. Bada salbuespen bat, *-a* artikulua, beti edo ia beti agertzen da izen arruntekin eta adjektibo apurrekin. Edozelan ere, *-a* marka honek ez du, aro honetan, morfologiarik adierazten, horrela bereganatzen baitituzte haurrek hitzak. *-a* marka hori egoki darabiltela erakusteko, geroago, eranztean ikasi beharko dute.

Aro honetan darabiltzaten aditzak nini-aditzak (*nanan, aupa*,...) edo aspektu burutuaren itxura duten aditz jokatugabeak dira (*etorri, apurtu*,...), baina ez dute aspekturik islatzen (Barreña, 1995; Ezeizabarrena, 1996).

[21] Hainbaten aro gehiago ere igar daiteke, baina hemen nagusienak edo behinenak baino ez dira erakutsiko.

Hitz biko esaldietako hitz-hurrenkerari dagokionez, nabarmenena da mintzagaitzat jo daitekeena esaldiaren hasieran gauzatzen dutela; argia da kontu hau galderetan (8f), izenordain galdetzailea beti ekoizten baitute azkenean.

b) Aditz-sintagmaren aroa (2;00-2;01). Bigarren aro honetan adizkiak gauzatzen hasten dira, baita izen-sintagmei eransten zaizkien hainbat morfologia-marka ere.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| (9) | a. azala izan da | O 2;00 | b. azal bat | O 2;00 |
| | c. o(ra)in zure ulea | O 2;00 | d. guk ikusi | O 2;01 |
| | e. hau ez da | M 1;09 | f. lau sei da(g)o(z) | M 1;09 |
| | g. nik hau nora bota? | O 2;01 | h. kotxea nun? | M 1;09 |

Aro honetan nabarmena da izenei eransten zaizkien morfología-marken ekoizpena, hala nola, *-k* ergatiboaren marka, *-i* datiboaren marka, *-en* genitiboarena *–k* pluralarena eta hainbat postposizio-marka (*-an*, *-ra, -tik, -rekin,*...). Aditzaren arloan, lehen adizkiak agertzen dira, baina guztiak dira singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak, nahiz sarri beste baten ordez ekoitzi, (9f) esaterako.




Ouhalla-k (1991) dioena kontuan izanik, badirudi une honetan haurrak aditz-kategoriaren (A") erabilera burutzen hasten direla, eta honek hurrenkera libre samarra erabiltzea ahalbidetzen diela (10[22]): SOA, AOS, SAO eta OAS hurrenkerak.

Hiruzpalau hitzeko esaldiak egiten dituzten arren, galderetan darabilten hitz-hurrenkera esanguratsua da, ez baitira ohiko galdetzaileen mugimendua egiteko gauza, hots, *nora* eta *non* bezalako galdetzaileak esaldien hasierara eroateko (9g eta 9h).

c) INFL edo inflexioaren kategoriaren aroa (2;02-2;03). Aditz-sintagmaren (A") gainean inflexio-sintagma (I") garatzen da, eta sintaxi-egitura handitu egiten da.

[22] Egitura horietan 3 egongune gertatzen dira: espezifikatzailea – osagarria – aditza, baina hainbat hurrenkeratan. *Espez* eta *osag* egonguneetan hainbat elementu gauzatu daitezke.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| (11) | a. holan ipiniko (dug)u | M 2;00 | b. badakit | O 2;03 |
| | c. hemen jausiko da | P 2;05 | d. hemendik zer sakatu? | O 2;03 |
| | e. ez daki(t) nun ipini hau | M 2;02 | f. non dago *kakilia*? | P 2;07 |

Aro honetan aditz-morfologia hasten dira erabiltzen, lehenengo aspektu-markak (*-tzen*, *-ko*) eta subjektuarekiko komunztadura duten adizkiak (*naiz, dut, dugu,*...). Geroago etorriko dira gainerako aditz-ezaugarriak: gainerako pertsonak, aldia eta modua.

Gramatika-ezaugarri horiek I'' egiturari esker gerta daitezke, eta hitz-hurrenkera bera ere asko zabaltzen da, baina ez da hurrengo arora arte guztiz garatuko. Galderetan, esaterako, oraindik adizki trinkoak baino ez darabiltzate.

d) KONP edo mendeko esaldien aroa (2;04tik aurrera). I'' egituraren gainean garatzen den K'' egiturak bereziki bi urrats egitea ahalbidetuko die haurrei; batetik, mendeko esaldiak egitea; bestetik, helduek bezalako galdera-esaldiak ekoiztea. Galdera-esaldietan nabarmena da garapena aro honetan, lehen aldiz agertzen baitira honelako hurrenkerak: (mintzagaia) – galdetzailea – aditza – adizkia – sintagmaren bat (12 c, d).

| | | |
|---|---|---|
| (12) | a. kamioia badatorrela etxera! | O 2;06 |
| | b. ia sartzen dan | M 2;09 |
| | c. zeatik kendu dau (*du*) nire kamioia? | M 2;04 |
| | d. honek zer esaten dotze (*dio*) mutilari? | O 2;08 |

Atal honetan sintaxiaren nagusigoa erakutsi da, gramatikaren garapenaren arorik behinenak ahalbidetuz eta bideratuz: gramatikarik gabeko aroa – aditz-sintagmaren aroa (A'') – inflexio-sintagmaren aroa (I'') – konplementatzaile-sintagmaren aroa (K''). Halere, badira interpretazio zehatzagoak eta aro gehiago ikusi dituzten ikertzaileak, baina asmoa ez da interpretazio sintaktikoa zehatz erakustea, sintaxiak gramatikaren garapenean duen garrantzia aldarrikatzea baino. Bestalde, gramatikaren garapena aroetan garatzen dela ikusirik, bere jabekuntza mailakatua dela baiets daiteke eta, hortaz, hizkuntza-ahalmena umotu edo hazi egiten dela haurrarengan.

## 6. Ondorioak

Atal honetan urritasun edo zailtasun fisikorik eta psikikorik ez duten haurren euskararen garapenaren ezaugarri behinenak azalduko dira, betiere gorago jaso diren emaitzetan oinarriturik.

A) Euskararen jabetzea prozesu mailakatu eta etengabea da, edozein hizkuntzarena bezalaxe. Garapena aroz aro eta urratsez urrats gertatzen da, hasierako pertzepzio fonologikotik sintaxiaren gauzatze zorrotzena gorpuztu arte.

Ikusi den bezala, pertzepzio edo prozesatze fonologikoa deritzana izan daiteke lehen urratsa, eta ondoren datoz fonologiaren, hiztegiaren eta gramatikaren urratsak. Halere, argi utzi behar da urrats bat guztiz garatuta izan barik haurra hurrengoan sartzen dela; horrela, garapen fonologikoa guztiz garatu barik izan arren, lehen hitzak ulertzen eta ekoizten hasten da haurra; edo hiztegiaren bereganatzea amaitu aurretik hasten da gramatika baitaratzen eta erabiltzen.

Prozesu mailakatua arlo bakoitzaren garapenean ere ikus daiteke. Esaterako, fonologiaren garapenean nabarmen ikus daiteke zenbait hotsen errealizazioa goizago gertatzen dela beste batzuena baino. Silaba-egituraren errealizazioan ere ikusi da hurrenkera mailakatua: KB, KBK, KBKK eta KrB(K). Lexikoaren garapenean ere era nabarian antzeman da nola izenak diren erabilitako lehenak eta morfologia-hitzak azkenak. Gramatikaren garapenean ere mailakaketa agerikoa da: gramatikarik gabeko aroa – aditz-sintagmaren aroa (A'') – inflexio-sintagmaren aroa (I'') – konplementatzaile-sintagmaren aroa (K'').

Etengabea ere bada hizkuntzaren garapena. Adibiderik ikusgarriena hiztegiaren garapenarena da, ohartu behar baita bizitza osoan zehar hitzak ikasten ari dela gizakia.

B) Hizkuntzaren jabetzea mailakatua eta etengabea da haur guztiengan, eta aro zein urrats guztiak berdin-berdinak dira haur guztiengan. Baliteke adinari begiratuta aldeak izatea, baina hurrenkera bera betetzen dute haur guztiek. Adinaren arabera aldeak izatea ohikoa da hizkuntzaren garapenean zein gizakiari dagokion beste hainbat garapenetan ere, hala nola, motrizitatearen garapenean.

Gramatikaren garapena, hots, morfologiarena eta sintaxiarena, perpausaren egitura hierarkikoak bideraturik gertatzen da, eta haatik ikusten dira aro berak eta hurrenkera bera haur guztiengan; behintzat, H1 eta 2H1 prozesuak jarraitu dituzten umeengan. Gainera, era nabarmenean ikusi da gramatika umotu edo hazi egiten dela haurrarengan.

C) Hizkuntzaren garapenean bereganatutako ezaugarrien erabilera sendotzeko aldia behar du haurrak. Ezaugarri zehatz baten lehen ekoizpenetik berau gauzatzea eskatzen den guztietan egoki erabili arte hilabeteetako aldia behar izaten du haurrak. Esaterako, ergatiboa adierazten duen *–k* marka ekoizten hasten den unean, lantzean behin baino ez du gauzatuko marka hori; ondoren, erabileraren sarritasuna handituz joango da, eta hilabeteetara sendotuta eta bermatuta egongo da marka horren erabilera.

D) Hizkuntzaz jabetzean haurrak helduentzat akatsak diren ekoizpenak egiten ditu, arauetatik desbideratutako ekoizpenak, alegia. Balizko akats horiek prozesu mailakatu eta etengabearen ondorioak dira, eta beharrezkoak prozesua egoki burutzeko. Ezin dira, beraz, ekidin, ezta akats bezala hartu ere, garapenaren ikuspuntutik, bederen.

E) Hizkuntzaren jabetzean zehar haurrak gai dira euren bat-bateko ekoizpena zuzentzeko eta hizkuntzaren arauetara moldatzeko (ikus 7. adibidea). Gaitasun hau haur guztiek daukate, nahiz batzuek beste batzuek baino sarriago erabili edo errazago erakutsi.

Kontua zera da, hizkuntza-arauen baitaratzea gizakiok gramatika garatzeko daukagun ahalmen bereziari esker gertatzen dela, eta lehen hizkuntza(k) garatzean berez gertatzen dena. Lehen hizkuntz(ar)en gramatika-arauak modu automatikoan darabiltza gizakiak, senari jarraituz bezala, eta, lapsuetan eta lantzean behingo okerretan izan ezik, zaila gertatzen da arauak ez betetzea. Beste zerbait gertatzen da, ostera, hizkuntzaren bat H2 bezala ikasi denean.

F) Haurrak jaiotzatik bi hizkuntza bereizita eta era orekatuan entzuten baditu biez jabetuko da bere lehen hizkuntzak balira bezala, hots, bietan izango du haur elebakarrek daukaten adinako gaitasuna.

Baliteke jaiotzatik elebidunak diren haurrak aldi luzeagoa behar izatea hizkuntzez jabetzeko, baina aldi hori ohikotasunaren barruan izaten da. Agian motelago bereganatuko ditu gramatika-arauak, baina gaitasuna baitaratuko du hizkuntza bietan, hizkuntza biekiko harremanak orekatuak badira. Hiztegiaren garapenean baliteke ezberdintasunak izatea hizkuntza bakoitzarekin duen harreman-motaren arabera. Adibidez, hezkuntza guztia A hizkuntzan egin duen gazteak eta B hizkuntza baserrian baino ez badu entzun, zilegi da pentsatzea bere hiztegiak ezberdinak izango direla.

G) Bigarren hizkuntzaren jabetze-prozesua lehen hizkuntzarenaren ondoren gertatzen bada (haur-H2), baliteke bigarrenean lortutako gaitasuna ez izatea berau lehen hizkuntzatzat duten haurren mailakoa, baina baliteke haur elebakarren adinako gaitasuna erdiestea ere.

Bigarren hizkuntzaren jabetze-prozesuan eskuratutako gaitasuna hainbat faktoreren eraginpean dago, hala nola, bigarren hizkuntza entzuten hasi zenean zuen adina, bigarren hizkuntza entzuten izandako maiztasuna, bigarren hizkuntzarekiko atxikimendua eta bigarren hizkuntza erabiltzeko duen beharra. Zaila da aurreikustea faktore horiek nola jokatzen duten haurrez haur eta nolako elkar-eragina duten.

Edozelan ere, lanean ikusi da bost urterekin gaztelania ulertzen zuten haurrek, baina zailtasunak zituztenak aurretik entzundakoa berkontatzeko, zortzi urterekin ederto bereganatu zituztela gaztelaniaren sintaxi-hurrenkerak eta morfologia-arauak. Beraz, baldintzen arabera, baliteke bigarren hizkuntza lau urtetik aurrera entzuten hastea eta, halere, gaitasun handia eskuratzea bere erabileran.

Edozelan ere, eta hemen halakorik ikusi ez den arren, badira ikerketak bigarren hizkuntza (haur-H2) garatzean haurrak lortutako gaitasuna ez dela beti elebakarrak duen bezalakoa ondorioztatu dutenak.

H) Bigarren hizkuntza hiru urte izan aurretik hasten bada haurra entzuten (haur-H2), eta maiztasun egokia badu entzundakoan, aukera handiak ditu haurrak elebakarrak adinako gaitasuna erdiesteko hizkuntza horretan. Antza, haur-H2 delakoa entzuten hasten deneko adinak garrantzia handia ei du. Gizakiok genetikoki hornituta dauzkagun fonologia- eta gramatika-hatsarre abstraktuak[23] ahalbidetzen dituen prozesamendua eskuragai izateko badira oso goiz *pizten* diren *aldi bereziak* (*aldi kritikoa*), eta aldi horien barruan ez badugu H2 hizkuntza entzuten, prozesatzen eta garatzen, prozedura edo mekanismo hori ezin dugu erabili H2 hizkuntzaren fonologia eta gramatika atalak baitaratzeko. Gaur, zenbait ikerketak erakusten ei dute fonologiaren eta gramatikaren atalak hainbat aldi edo une kritiko dituztela, adin diferenteetan gertatzen direla, alegia: fonologiarena oso goiz eta gramatikaren atalarenak hiru urte izan aurretik (Meisel, 2011).

Halere, gogoan izan behar da gizakiak badituela beste era edo mekanismo kognitibo batzuk hizkuntzak H2 bezala ikasteko, eta horiek *pizteko* hainbat faktorek modu egokian eragin behar dutela, hala nola, atxikimenduak eta beharrak; eta gero, nagusitu ahala, faktore horien iraupena izan behar duela bere bizitzan zehar.

[23] Fonologia eta gramatika, inola ere ez hizkuntzaren atal guztiak.

## Bibliografia

Alegria, A. (2007) Haur elebidun baten silaba amaierako kontsonanteen jabekuntza. Euskal Herriko Unibertsitatea, eskuizkribua.

Almgren, M. (2000) *La adquisición del tiempo y aspecto verbal en euskera y castellano.* Euskal Herriko Unibertsitatea, doktorego tesia.

Barreña, A. (1994) Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos. J. Meisel (arg.)*, La adquisición del vasco y del español en niños bilingües.* Frankfurt-Main: Vervuert - Iberoamericana, 231-284.

Barreña, A. (1995) *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak.* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua.

Barreña, A. (2000) Estructuras Subordinadas en Niños Monolingües y Bilingües Vasco-Españoles. R.P. Leow eta C. Sanz (arg.) *Spanish Applied Linguistics at the Turn of the Millennium.* Somerville: Cascadilla Press, 157-173.

Barreña, A. (2001) Grammar Differentiation in Early Bilingual Acquisition: Subordination Structures in Spanish and Basque. Almgren, M., Barreña, A., Ezeizabarrena, M. J., Idiazabal, I. eta McWhinney, B. (arg.) *Research on child language acquisition.* Somerville: Cascadilla Press, 78-94.

Barreña, A. (2003) Euskararen sistema fonologikoaren jabekuntzari buruzko oharrak. Makazaga, X. eta Oyharçabal, B. (arg.) *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian.* Bilbo: Euskaltzaindia, 161-178.

Barreña, A., García, I., Almgren, M. eta Arratibel, N. (2006) Lexikoaren eta gramatikaren arteko erlazioaz, *Gogoa, VI, I,* 55-76.

Barreña, A., García, I., Ezeizabarrena, Mª. J., Almgren, M., Arratibel, N., Petuya, A. eta Colina, A. (2007) Euskeraren garapena lehen hizkuntza legez eta morfologiaren agerrera mailakatuaren inguruan, *Uztaro*, *60*, 67-87.

Barreña, A., García, I., Ezeizabarrena, M.J., Almgren, M., Arratibel, N., Olano, I., Barnes, J., Petuya, A. eta Colina, A. (2008) *MacArthur-Bates komunikazio garapena neurtzeko zerrenda. Euskerara egokitua. Erabiltzaileentzako gida eta eskuliburu teknikoa.* Bilbo: UEU.

Barreña, A. eta García, I. (2009) Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan: elebakarrengan eta elebidunengan, *Euskera aldizkaria, 54-2,* 603-638.

Barreña, A., Ezeizabarrena, M.J. eta García, I. (2011a) La influencia del grado de exposición a la lengua en la adquisición del euskera (8 - 30 meses), *Infancia y Aprendizaje 34 (4)*, 393-408.

Barreña, A., Ezeizabarrena, M-J. eta Garcia, I. (2011b) Haur euskaldunen komunikazio garapena neurtzeko KGNZ tresna: 8-50 hilabete bitartekoen emaitzak. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta Hik Hasi Aldizkariak antolaturiko VI. Jardunaldiak: Haur hezkuntzaren garrantzia euskararen jabekuntzan eta garapenean. Hitzaldia.

Barreña, A. eta Almgren, M. (2012, agertzeko) OV and VO in Basque and Spanish monolinguals and bilinguals.

Bates, E.; Marchman, V.; Thal, D.; Genson, L.; Dale, P.; Reznick, J. S.; Reilly, J. eta Hartung, J. (1994) Developmental and stilistic variation in the composition of early vocabulary, *Journal Child Language 21*, 85-123.

Bloom, P. (2000) *How children learn the meanings of words*. Cambridge MA: The MIT Press.

Bosch, L. (1984) El desarrollo fonológico infantil: una prueba para su evaluación. M. Siguán (arg.) *Estudios sobre psicología del lenguaje infantil*. Madrid: Pirámide, 33-58.

Bosch, L. eta Sebastián-Gallés, N. (2001) Evidence of early language discrimination abilities in infants from bilingual environments, *Infancy, 2,* 29 – 49.

Boysson-Bardies, B. de, Halle, P., Sagart, L. eta Durand, C. (1989) A crosslinguistic investigation of vowel formants in babbling, *Journal of Child Language*, *16*, 1-18.

Brown, R. (1957) Linguistic determinism and the part of speech, *Journal of Abnormal and Social Psychology 55*, 1–5.

Casselli, M.; Bates, E.; Casadio, P.; Fenson, J.; Fenson, L.; Sanderl, L. eta Weir, J. (1995) A cross-linguistic study of early lexical development, *Cognitive Development*, 10, 159-199.

De Houwer, A. (2009) *Bilingual First Language Acquisition*. Bristol-Buffalo-Toronto: Multilingual Matters.

DeCasper, A. J., Lecanuet, J. P., Busnel, M. C., Granier-Deferre, C. eta Maugeais, R. (1994) Fetal reactions to recurrent maternal speech, *Infant Behaviour and Development 17*, 159-164.

Elman, J. L. (1993) Learning and development in neural networks: the importance of starting small, *Cognition*, *48*, 71-99.

Elosegi, K. (1998) *Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun batengan.* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

Ezeizabarrena, M. J. (1996) *Adquisición de la morfologia verbal en euskera y castellano por niños bilingües.* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

Ezeizabarrena, M. J. (1998) Hizkuntza garapenaren aro nagusiak. *Jakingarriak* 38, 7-13.

Ezeizabarrena, M.J. eta Manterola, I. (2009) The inconsistent ergative marking in the acquisition of Basque: L1 and early L2. *International Workshop on ergative languages* simposiumean aurkeztutako hitzaldia. Bilbo, 2009-11-4.

Ezeizabarrena, M.J. (agertzeko) The acquisition of the (in)consistent ergative marking in Basque: L1 and early L2. Fernandez, B. eta Laka, I. (arg.) *Lingua.*

Fenson, Larry, Dale, Philip S., Reznick, J. Steven, Thal, Donna, Bates, Elisabeth, Hartung, Jeffrey P., Pethick, Steve eta Reilly, Judy S. (1983) *Communicative Development Inventories. User's Guide and Technical Manual.* San Diego: Singular Publishing Group, INC.

Guasti, M. T. (2002) *Language acquisition. The growth of grammar.* Cambridge, Massachusetts: The MIT Press.

Hamers, J.F. y Blanc, M.H.A. (2000) *Bilinguality and Bilingualism.* Cambridge: Cambridge University Press.

Hernández Pina, F. (1984) *Teorías psicosociolingüísticas y su aplicación a la adquisición del español como lengua materna.* Madrid: Siglo XXI.

Juan-Garau, M. eta Pérez-Vidal, C. (2001) Mixing and pragmatic parental strategies in early bilingual acquisition, *Journal of Child Language, 28,* 59-86.

Lenneberg, E.H. (1982) *Fundamentos biológicos del lenguaje.* Madrid: Alianza.

Locke, J. L. (1983) *Phonological Acquisition and Change.* New York: Academic Press.

López Ornat, S., Gallego, C., Gallo, P., Karousou, A., Mariscal, S. eta Martínez., M. (2005) *Inventario de Desarrollo Comunicativo MacArthur. Manual de la adaptación española.* Madrid: TEA Ediciones.

Lleó, C. (1997) *La adquisición de la fonología de la primera lengua y de las lenguas extranjeras*. Madrid: Visor.

Lleó, C., Kuchenbrandt, I., Kehoe, M. eta Trujillo, C. (2003) Syllable final consonants in Spanish and German monolingual and bilingual acquisition. Müller, N. (arg.), *(In)vulnerable Domains in Multilingualism*. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins, 191-220.

Marchman, Virginia A., Martínez-Sussmann, Carmen eta Dale, Philip S. (2004) The language-specific nature of grammatical development: evidence from bilingual language learners, *Developmental Science 7 (2,:* 212-224.

Mehler, J., Jusczyk, P., Lambertz, G., Halsted, N., Bertoncini, J. eta Amiel-Tison, C. (1988) A precursor of language acquisition in young infants, *Cognition 29*, 143-178.

Mehler, J., Bertoncini, J., Dupoux, E. eta Pallier, C. (1994) The Role of Suprasegmentals in Speech Perception and Acquisition, *Dokkyo International Review, 7*, 338-343.

Meisel, J. (2004) The bilingual child. T.K. Bhatia eta W.C. Ritchie (arg.) *The handbook of bilingualism*. Oxford: Blackwell, 91-113.

Meisel, J. (2007) Child second language acquisition or successive first language acquisition? J. Meisel (arg.) *Exploring the limits of the LAD*. Universität Hamburg: Arbeiten zur Mehrsprachigkeit-Working Papers in Multilingualism, 33-64.

Meisel, J. (2011) *First and Second Language Acquisition*. Cambridge: Cambridge University Press.

Newport, E.L. (1990) Maturational constraints on language learning, *Cognitive Science*, *14*, 11-28.

Ouhalla, J. (1991) *Functional categories and parametric variation*. London: Routledge.

Pearson, B. Z., Fernández, S. C., Lewedeg, V. eta Oller, D. K. (1997) The relation of input factors to lexical learning by bilingual infants, *Applied Psycholinguistics, 18*, 41-58.

Pearson, B. Z., Fernández, S. V eta Oller, D.K. (1995) Lexical Development in Bilingual Infants and Toddlers: Comparison to Monolingual Norms. Birgit Harley (arg.) *Lexical issues in Language Learning*. Ann Arbor: Benjamins, 31-57.

Pérez-Pereira, M (2007) Early Galician/Spanish Bilingualism: Contrasts with Monolingualism. C. Pérez-Vidal, M. Juan-Garau eta A. Bel (arg.) *A portrait of the young in the new multilingual Spain. Issues in the acquisition of two or more languages in multilingual environments.* Londres: Multilingual Matters, 39-62.

Werker, J. F. eta Tees, R. C. (1984) Cross-language speech perception: Evidence for perceptual reorganization during the first year of life, *Infant Behavior and Development, 7,* 49-63.

Werker, J.F. (1995) Age-related changes in cross-language speech perception: Standing at the crossroads. W. Strange (arg.) S*peech Perception and Linguistic Experience.* Baltimore: York Press.

Zubiri, J. J. (1997) *Izen Sintagmaren determinazioa eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte. Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren jarraipena.* Euskal Herriko Unibertsitatea, argitaratu gabeko tesia.